

OROITIDAZKIA



Datuak Babesteko
Euskal Bulegoa
Agencia Vasca de
Protección de Datos

Datuak Babesteko Euskal
Bulegoaren Jarduerak

Edizioa:

© Datuak Babesteko Euskal Bulegoa

Argitaratzailea: Datuak Babesteko Euskal Bulegoa

Internet: www.avpd.es

Jabego Intelektualaren Eskubideak babesten du lan hau. Gordeta daude Legeak babesten dituen eskubide guztiak, bai eta itzultzeko, berriro inprimatzeko, irratiz, telebistaz edo internetez (web orria) hedatzeko, fotomekanikaren bidez edo beste edozein eratarik kopiatzeko eta datuak prozesatzeko instalazioetan gordetzeko eskubideak ere, nahiz eta lanaren zati bat izan.

Aurkibidea	Orrialdea
1. AURKEZPENA	7
2. KONTSEILU AHOLKU-EMALEA	11
2.1. KONTSEILU AHOLKU-EMALEAREN OSAKETA	11
2.2. EGINDAKO BILERAK	11
3. KONTSULTA-FUNTZIOA	13
3.1. IRIZPENAK	13
Zergei buruzko datuaz informatzeko betebeharra	13
Etorkinen Artapen Juridiko-Sozialari dagozkion fitxategietan lege-hauste penal edo administratiboei buruzko datu pertsonalak sartu ahal izatea	14
Laguntzak jasotzeari buruzko betebeharrak egiaztatzeko datuak lagatzea	14
Hildako pertsonen datuen lagapena	15
Bide elektroniko, informatiko eta telematikoak	15
Enplegatu publikoen datu pertsonalak ordezkari sindikalei lagatzeaz	16
3.2. TXOSTENAK	17
3.3. AHOKU EMATEKO ETA E-MAILEZ, TELEFONOZ ETA BERTATIK BERTARA EGINIKO KONTSULTEI ERANTZUNA EMATEKO BILERAK	17
4. KONTROL-FUNTZIOA	19
4.1. BABES-ESPEDIENTEAK	19
4.2. SALAKETAK	19
4.3. ARAU-HAUSTEEN ESPEDIENTEAK	19
5. HEZKUNTZA IKUSKARITZA SEKTORIALA	21
Ikuskaritza Sektorialen Prozedura-Eskuliburua	21
Hezkuntzako ikuskaritza sektoriala	21
6. DATUAK BABESTEKO EUSKADIKO ERREGISTROA	23
6.1. INFORMAZIOAREN JATORRIA	23
6.2. INSKRIPZIO-ESKABIDEAK	23
6.3. ERAKUNDE AITORTZAILEAK	24
6.4. FITXATEGIEN INSKRIPZIO ETA EZABAPENAK	25
6.5. .INSKRIBATUTAKO FITXATEGIEN BANAKAPENA: ORGANISMOAK	26
6.6. INSKRIBATURIKO FITXATEGIEN SEGURTASUN-MAILAK	26
7. DATU PERTSONALEN BABESAREN EUSKADIKO PERTZEPZIOARI BURUZKO AZTERKETA ETA TXOSTENAK	29
7.1. DATUAK BABESTEKO AGENTZIAREN EXISTENTZIAZ ETA PRIBATUTASUNA IZATEKO ESKUBIDEAZ HERRITARREK DUTEN PERTZEPZIO SOZIALAREN GAINEKO AZTERKETA KUALITATIBOA EGITEA	29
Azterketaren helburu orokorrak	29
Azterketaren helburuak hauek izan dira:	29
Azterketaren emaitzak	29
DBEBren konpromisoa	30
7.2. PRIBATUTASUNAZ ETA BULEGOA EXISTITZEAZ HERRITARREK DUTEN PERTZEPZIOARI BURUZKO INKESTA KUANTITATIBO BAT DISEINATZEA	30
7.3. ADMINISTRAZIO PUBLIKOEK ETA ENPRESA PRIBATUEK DATU PERTSONALEN BABESAREKIN LOTURIKO JARDUEK INKESTAK EGITEKO PRESTAKUNTZA-LANAK	30
8. PRIBATUTASUNAREN KONTZEPTUA ETA DBEBKO JARDUEREN HEDAPENA, BAI HERRITARREN ARTERA, BAITA ADMINISTRAZIO PUBLIKOEN ARTERA	31
8.1. DATUAK BABESTEKO EUSKAL BULEGOAK ESKUMENA EGIKARITZEN DUEN ERAKUNDEEN AURREKO AURKEZPEN KANPAINA	31
8.2. PRIBATUTASUNAZ ETA BULEGOAZ HEDAPEN-MATERIALAK	31
“Ba ote da zure intimitatea baino ezer pribatuagorik?”	31
“Babestu zeure datu pertsonalak” egutegia	32
8.3. DATUAK BABESTEKO EUSKAL BULEGOA HEDABIDEETAN	33
8.4. DATUEN BABESAREN EUROPAR EGUNA (2007KO URTARRILAREN 28)	33
8.5. WEB ORRIA	35
Web orria eguneratzea	35
Web orriko bisitariak	35

DBEBren atariaren bisitariak	36
8.6. ELEBERRI MODUAN NARRATURIKO "EMAZKIDAZU ZURE DATUAK" KONTAKIZUNAK	36
9. DATU PERTSONALEN BABESA EUSKAL HEZKUNTZA-SISTEMAN	37
9.1. OINARRIZKO HEZKUNTZAREN EUSKAL CURRICULUMARI DBEBK EGINIKO EKARPENAK	37
Oinarrizko Hezkuntzaren Curriculumeko Gaitasun-Sisteman "bizitza pribatuaren balioa eta errespetua"	37
ikastea	37
Datu pertsonalak babesteko eskubidearekin loturiko ekarpenak, azkenean Hezkuntzaren Euskal Curriculumara osatuko dutenak	38
Oinarrizko Hezkuntzan curriculumara ezartzeari DBEBk etorkizunean egingo dizkion ekarpenak	39
9.2. EHUREKIN BATERA, IKASKUNTZA-PLANETARAKO EKARPENAK ERATUZ	39
10. DATU PERTSONALEN BABESAZ SENTSIBILIZATZEKO ETA PRESTAKUNTZAN JARDUTEKO MATERIALAK SORTZEA	40
10.1. ENPLEGATU PUBLIKOAK PRESTATU ETA SENTSIBILIZATZEKO BIDEOA	40
10.2. FUNTZIONARIO PUBLIKOARENTZAKO OINARRIZKO GIDA EGITEKO AGINDUA ETA KOORDINAZIOA	40
10.3. BIOMEDIKUNTZA ALORREAN OSASUNARI DAGOZKION DATU PERTSONALAK PROZESATZEKO PRAKTIKA EGOKIEN GIDA	41
11. EUSKAL ADMINISTRAZIO PUBLIKOETAN DATU PERTSONALEN BABESAREKIN ZERIKUSIA DUTEN PROIEKTUETAN ALDAKETAK SORTZEA	42
11.1. EUSKADIKO TOKI ERAKUNDEETAKO JARDUNBIDE EGOKIEN ESKULIBURUA BUKATZEAR.	42
11.2. UPV/EHUko DATU PERTSONALEN BABESAREN ARAUDIAREN IDAZKETA	43
11.3. HAURRESKOLAK PARTZUERGOAN PRESTAKUNTZA-PLANAREN GARAPENA PLANIFIKATZEN	44
12. BESTE ADMINISTRAZIO, BULEGO ETA ERAKUNDEEKO LANKIDETZA ETA HARREMANAK	45
12.1. PARTE HARTZEA NAZIOARTEKO FOROETAN	45
Datuak Babesteko Europako Agintarien Biltzarra - Udaberriko Biltzarra	45
Datuak Babesteko Europako Agintarien Biltzarra - Udazkeneko Biltzarra-	45
Telekomunikazioetako Datuen Babesari buruzko Nazioarteko Lan-taldea (IWGDPT - Berlingo Taldea)	47
Twinning Project	48
12.2. ESTATUKO DATUAK BABESTEKO BESTE BULEGO BATZUEKIKO LANKIDETZA	48
12.2.1. <i>Koordinazio-taldeen funtzionamendua</i>	48
12.2.2. <i>TECNIMAPen parte hartzea</i>	50
12.3. DATUAK BABESTEKO ESPAINIAKO AGENTZIAREN AHOLKU-BATZORDEAN PARTE HARTZEA	53
12.4. DATUAK BABESTEKO AUTONOMIA MAILAKO AGENTZIEN IV. TOPAKETA ANTOLATZEA	53
12.5. DATUEN BABESAREN INGURUKO BILTZARRETAN, MINTEGIETAN ETA BESTELAKO JARDUERETAN IZANDAKO PARTE HARTZEA	55
12.6. ESTATISTIKAKO EUSKAL PLANAREN KOORDINAZIO LAN-TALDEAREKIKO LANKIDETZA	56
12.7. HITZARMENAK	56
12.7.1. <i>Sinatutako Hitzarmenen jarraipena</i>	56
12.7.2. <i>Hitzarmen berriak sinatzea</i>	56
Sociedad Española de Informática de la Saludekin hitzarmena	56
Hitzarmena Askatasun eta Informatikaren Batzordearekin	57
Hitzarmena Kalitaterako Euskal Iraskundearekin (EUSKALIT)	58
13. BARNE KUDEAKETA	60
13.1. PERTSONEN KUDEAKETA	60
13.1.1. <i>2007ko aurrekontu-plantilla</i>	60
13.1.2. <i>2007an lanean jardun duten langileak</i>	60
13.2. AURREKONTUAREN, KONTABILITATEAREN ETA ONDAREAREN KUDEAKETA	60
13.2.1. <i>2007ko aurrekontua</i>	60
13.2.2. <i>2007ko aurrekontuaren exekuzioa</i>	61
13.2.3. <i>Aurrekontu-kudeaketari buruzko instrukzioa</i>	62
13.3. BALIABIDE MATERIALAK	62
13.3.1. <i>Egoitza</i>	62
13.3.2. <i>Beste zenbait kontratu txiki</i>	62
13.4. TEKNOLOGIA-EGITURA ETA APLIKAZIOAK GARATZEA ETA HOBETZEA	63
13.5. PROZESUKAKO KUDEAKETA ETA HOBETUNTZA-TALDEAK	63

1. Aurkezpena

Datuak Babesteko Euskal Bulego (DBEB) erakunde publikoak lau urteko bizitza bete du, 2004. urtean sortua baita. Une egokia da, beraz, lau urteko honetako funtsezko bi egintzez gure gogoetak parteka ditzagun; bi egintza horiek dira, hain zuzen ere, DBEB erakundearen eraketa, batetik, eta bizitza pribatua eta informazioarekiko autodeterminazioa egikaritzeko eskubideak gizartearen baitan izan duen indar hartzea, bestetik.

Izan ere, erakunde baten hasieran lanetan jardun behar izaten da estrukturak eta giza taldeak osatzen, ingurune sozial eta instituzionalekin harremanak eraikitzen, politika, prozedura eta praktikak antolatzen, eta, hitz batez, administrazio publikoentzat eta herritarrentzat —hauxe baita gure benetako helmuga— lanean elkarrekin jarduten ikasteko. Aurreneko urrats horiek emanak daude eta DBEBn hobeki prestatuago gaude, pertsonen gaineko informazioaren gestioari dagokiola, administrazio publikoek planteatzen dizkiguten premiei erantzuna emateko.

Bizitza pribatua babesteko eta gainerako pertsonen eta erakundeek gure datu pertsonalez egiten duten erabilera kontrolatzeko eskubidearen kontzientzia gizartean agertzea fenomeno soziala da eta aintzat jo beharra dago, baina, horrez gainera, gure jardueren eraginkortasuna ebaluatu, eta, azken finean, herritarrei zerbitzua eman nahi badiogu, fenomeno horren eta bere bilakaeraren ezagutza zehatza eduki beharra dago. Hori etsi-etsian sinetsirik, herritarrek pribatutasunerako eta bere datu pertsonalen zaintzarako eskubideaz daukaten pertzepzio sozialari buruzko azterketa kualitatiboa egin dugu. Ondorioa, espero genuena: eskubidearen berri oraino ez dugu, baina kezka gero eta biziagoa da bideo-zaintza, interneten adin txikikoek nozitzen duten babesgabea, telefono mugikorrez errespeturik gabe eta oldarkortasunez erabiltzea, posta elektronikoaren erabileraren kontrola enpresetan, telemarketinaren gehiegikeriazko kanpaina eta beste hainbaten aurrean.

2004-2008 epe hori, egiari zor, urria da oraino gure erakundearen jarduerak euskal herri administrazioetan duten inpaktua (edo aldarazteko ahalmena) ebaluatu ahal izateko. Hala ere, 2007. urteko jardueren Oroitidazkian eskaintzen ditugun datuek gehikuntza erakusten dute: datu fitxategien erregistroen eta adierazpenen, aholkularitza-txostenen eskaeren, babes-espedienteen, kontsulten, ikuskaritzen kopurua ugaltu da; baita, era berean, hezkuntza sisteman eta euskal administrazio lokaletan, besteak beste, datu pertsonalen babesaren perspektiba sartzeko egintzen kopurua ere. Laburbilduz, bizitza pribatua zaintzeko eta datu pertsonalen gestio eta babeserako eskubideaz herritarrek, eta, batez ere, euskal herri administrazioek planteatzen dizkiguten eskakizunei erantzun espezializatuak ematen ari gatzaizkie.


Lege-alorrean eta gure jarduerari dagozkion arau berriei ari garela, 2007. urtea oparoa izan da, nahiz eta horren benetako oihartzuna oraindik iristear dagoen; dena den, administrazioaren eta herritarren arteko harreman eta informazioaren kudeaketa alorrean eta, horrekin batera, erakunde publiko guztiak egokitze premia aldaketa dezentekoa izango dela aurreikus dezakegu. Nolanahi ere, pribatutasuna zaintzeko eta datu pertsonalak babesteko eskubidea ez da gorpuztuko, seguruenik, herritarrei zor zaien eskubide bat gauzatzetik at: informatzeko eta zerbitzu publikoetarako sarbide elektronikoaz baliatzeko eskubideaz ari gara, noski.

Teknologien esparruan, internet eta bertako bilatzaileak bilakatu dira harreman sozial eta ekonomiko berriak sortzeko espazio elektroniko edo hirugarren ingurune egoki horretako protagonista. Internet, telefono mugikorrak eta informazioa bildu eta igortzeko tamaina txikiko dispositiboak bezala, informazioaren segurtasunarentzat eta gure pribatutasunarentzat arriskutsuak dira. Gaietan dugun balizko mehatxu horrekin —tamalez, Europako administrazio publiko baten kasuan, herritarren datu egiazko galera bihurtu baita— batera, pertsonen gure administrazio publikoetan dugun konfiantza sozialaren mehatxu iraunkorra jazotzen ari da. Hala bada, Euskadin datu pertsonalen babesaren pertzepzio sozialaren azterketak egiaztatu zuenez, euskal administrazioek datuak erabiltzeko eran sinesten dute herritarrek baina ez dute sinesten, ordea, enpresa pribatuek baliatzeko forman. Erronka behinena, beraz, herritarren konfiantza ez galtzea izango da, hori galdutakoan berriro eskuratzea nekeza baita.

Hemendik aurrera, ikaskuntza indibidual eta antolamenduari buruzkoa sustatzeko baldintza egokiak sortaraziko dituzten egintzen eta emaitzen lehentasunezko helmugak definitzen asmatzea izango da garrantzitsuena, horri esker, jakina, gizartearekiko hizketarik hoberenean jardungo baikara. Izan ere, eskubidea denon artean eratzen da: hiritarrek, gizaki diren heinean, hura aintzat hartu eta bere alde jardunez; datuak babesteko bulegoek, irizpideak finkatuz, informazioa ikertuz, kontrolatuz, hedatuz, ezagutza zabalaraziz; gizarteak, azkenik, bilbe sozial bizidun den aldetik, bizipen eta mehatxu berrien aurrean egokipenak moldatuz.

Iñaki Vicuña de Nicolás

Datuak Babesteko Euskal Bulegoaren Zuzendaria



2. Kontseilu Aholku-emailea

2/2004 Legearen 14. artikulua aurreikusitakoaren arabera, DBEBren zuzendariaren aholkularitzarako kide anitzeko organoa da Datuen Babeserako Kontseilu Aholku-emailea.

2.1. Kontseilu Aholku-emailearen osaketa

Kontseilu Aholku-emailearen kideak 2007 urtean hurrengo hauek izan dira:

- Eusko Legebiltzarraren ordezkaria, Eusko Legebiltzarraren Mahaiak 2004ko abuztuaren 31ko bileran izendatua: Juan Luis Mázmela Etxebarria jauna, Informazio Sistemen Zuzendaria.
- Euskadiko Autonomi Erkidegoaren ordezkaria, Gobernu Kontseiluak 2004ko uztailaren 13ko bileran izendatua: José María Endemaño Arostegui jauna, Erakunde Politikarako eta Toki Administrazioarako Zuzendaria.
- Lurralde Historikoen ordezkaria, Foru Diputazioen erabakiz izendatua: Carlos Samaniego Pérez jauna, 2007ko uztailera arte. Carlos Royuela Garrán jauna, LANTIK, SAKO Zuzendari Kudeatzailea, 2007ko uztailetik aurrera.
- Euskadiko Autonomi Erkidegoko lurralde-eremuko erakunde lokalen ordezkaria, EUDELEk izendatua: Rafael Ibargüen González jauna, 2007ko urrira arte. Ricardo Ituarte Aspiazu jauna, Santurtziko Alkate, 2007ko urriaren 23tik aurrera.
- Informatikako aditua, Euskal Herriko Unibertsitateko Errektoreak 2004ko azaroaren 29an hartutako ebazpenez izendatua: Eduardo Jacob Taquet, Ingeniaritza Telematikoaren Irakasle Titularra.
- Oinarrizko Eskubideetako aditua, Euskal Herriko Unibertsitateko Errektoreak 2004ko azaroaren 29an hartutako ebazpenez izendatua: Iñaki Esparza Leibar jauna, Zuzenbide Prozesaleko Irakasle Titularra.

Kontseilu Aholku-emailearen Lehendakaria **Juan Luis Mázmela Etxebarria** jauna izan da martxoaren 12ra arte, eta **José María Endemaño Arostegui**, harrezkero.

Kontseilu Aholku-emailearen Idazkari lanetan Datuak babesteko Euskal Bulegoko Idazkaria, Simón Mesanza Legarda jauna, aritu da.

2.2. Egindako bilerak

2007an hiru bilera egin ziren; horietan ondoko gaiak aztertu ziren besteak beste:

2007ko martxoaren 12ko bilera

- Egoerari buruzko txostena.
- Kontseilu Aholku-emailearen Lehendakari kargua berrestea.
- Autonomien arteko Topaketak 2007-ko antolaketaren diseinua.

2007ko uztailaren 4ko bilera

- Egoerari buruzko txostena.
- Autonomien arteko Topaketak 2007-ko antolakuntza.
- 2006ko Oroitidazkiaren aurrerapena.
- Euskal Bulegoaren eskumen-lurraldeari buruzko txostena, elkarre publikoak direla eta, 2/2004 Legeko 2. 1ª) artikuluari dagokionez.

2007ko azaroaren 16ko bilera

- Kontseilu Aholku-emailearen osaketaren aldaketa. Kide berrien aurkezpena.

- Egoerari buruzko txostena.
- IV. Autonomien arteko Topaketen emaitzak.
- Toki Administrazioako egintzak.
- Hezkuntza sektorean sektore-ikuskaritza.

3. Kontsulta-funtzioa

3.1. Irizpenak

Eginiko kontsultei idatziz emaniko erantzuna, 2/2004 Legeko 17 n) artikuluan jaso, herri-aholkularitzako zerbitzutat kontsidera daiteke eta "irizpen" izena ematea erabaki dugu. Datu pertsonalen babesari dagokionez, gai zehatz bati buruz zalantzak aurkezten dituzten administrazioei edo pertsona pribatu, fisiko zein juridikoei eskaintzen zaie.

Kontsulta-funtzio honen mugak honakoa eragingo dute:

- Datu pertsonalen babesarekin loturiko zeinahi gairi buruzkoa izatea kontsulta; berariaz, 2/2004 Legearen 2.1 artikuluan adierazitako administrazioek edo erakundeek sortu edo kudeatzen dituzten fitxategiei buruzkoak.
- Planteatu den kontua zehatza izatea; horrek agintzen du, gutxien-gutxienez, zalantzak sorrarazi dituen jokabidea zehaztea edo ustezko kasu bati xedapena aplikatzea.

2007. urtean 2006an egindako sei kontsultari erantzun zaie, eta guztira berrogeita bi kontsulta berri jaso dira. Horietatik, txosten bidez hogeita bosti eman zaie erantzuna, bosti gutun bitartez, biri posta elektronikoa bidez, eta gainerako hamarrei 2008 urtean ari zaie erantzuna ematen.

2007. urtean gertatukoak nabarmen utzi dio Bulego honi zenbait gai behin eta berriz agertzen direla eta bereziki kezkatzen dituztela kontsulta-egileak; horiek normalean bat datoz oinarritzko eskubidearen funtsezko edukian eragin zuzena duten jokabideekin.

Horregatik, gai horietan jarraitu beharreko ildoak ezartzen saiatu gara, herritarrei nahiz administrazioei ahalik eta ziurtasun eta segurtasun juridiko handiena eskaintzen ahaleginduz.

Hemen azpimarratu nahi genuke, bereziki garrantzitsuak direlako, datu pertsonalen lagapen hipotetiko desberdinei dagokienez eta datu pertsonalen babeserako eskubidearen eta politikan parte hartzeko eskubidearen arteko loturari dagokionez gure jarrera zein izan den.

Zergei buruzko datuaz informatzeko betebeharra

DBEB erakundeak, arautegi fiskal orokor zein foralean jasotako betebeharrak generikoaren (hau da, pertsona fisikoek eta juridikoek zerga-administrazioari zergekin lotura izan dezaketenean era guztietako datuak, txostenak, aurrerakinak eta egiaztagirak emateko duten obligazioa) eta, inoren datuak hirugarrengoko batek eskatu dituenean, interesatuari informazioa emateko obligazioaren arteko oreka bilatzen ahalegindu da.

Zergen ikuspegitik esanguratsu edo adierazgarriak diren datuez administrazioei informazioa ematera lege jakin batek behartzen duen arren, zerga-administrazioak interesatuari bere datuak nondik atera dituen jakinarazi behar izatearen salbuespentzat jo daiteke legezko betebeharrak hori, hurrengo ñabardurak eginez:

- Garrantzi handikoa da Epaitegi Gorenak 2003ko azaroaren 12an emaniko Epaian sartuta dagoen bereizte doktrinala jasotzea; horren arabera, doktrinaren zehaztapenen arabera, Zerga-Administrazioak hirugarrengoko informazioa eskuratzeko erabil ditzakeen bi prozedurak bereiziko dira: "hornidura" bitarteko eskurapena, arauak hainbat datu emateko betebeharra xedatzen duen kasuetan, Administrazioak horiek eskatu beharrik izan gabe eta, bestetik, "atzemate" bidezko eskurapena, berariazko jardura eskatzen duena, hots, norbaiti datu jakin batzuk eman ditzan exijitzen zaio (beraz, ez exijitzekotan, ez lirateke eskuratuko).
- Hornidurako eta atzemateko datuen artean bereiztea funtsezkoa da kontuari konponbidea emateko. Hornidurako datuei dagokiela, hainbat datu Zerga-Administrazioa igortzeko

obligazioa ohi dago: horixe da Zergei buruzko Lege Orokorreko 93.1 a), b) eta c) artikuluko kasuetakoa: honelakoetan bada Legean berariaz aurreikusiriko datu lagapena, Agentzia Espainiarrak exijitzen duen bezala eta, horrenbestez, informatzeko betebeharrari salbuespena aplikatuko litzaieke.

- Atzemate bidez eskuratutako datuen kasuetan, aitzitik, hau da, eskatu izan ez balira eskuratuko ez ziren datuak, printzipioz behintzat, titularrari bere datuak nondik atera diren jakinarazteko obligazioak bere horretan dirau.

Etorkinen Artapen Juridiko-Sozialari dagozkion fitxategietan lege-hauste penal edo administratiboei buruzko datu pertsonalak sartu ahal izatea

Fitxategi administratiboetan berariaz babestuak dauden datuak —lege-hauste administratibo edota penalei dagozkienak, adibidez— sartzeko egokitasunaz zirt edo zart erabakitzeko aurretiazko kontu funtsezkoa, gure iritziz, eskumen administratibo hori egikaritzeko datu horiek norberaren fitxategietan sartzea ezinbestekoa den ala ez determinatu beharra dago.

Hori dela eta, Epaitegi Konstituzionala, epai argi-emaila batean (1999/144 zk.), pertsonaren historial penala fitxategietan bildu eta jakinarazteko aukera dela eta, interpretazio murritzalearen aldeko agertu zen; interpretazio hori, DBEBren iritziz, zehapen administratiboei ere aplikatzeko modukoa da.

Zehazkiago, Euskadiko Autonomi Erkidegoko gizarte-zerbitzuek bideratutako atzerriko etorkinen bizitzeko eta lan egiteko eskaerak doan informatu, aholkatu, lagundu eta tramitatzeko, hasieran bederen, gehiegizkoa dirudi dagokion Administrazioaren fitxategian pertsona horren aurrekin aurrekari penalak edukitzeko beharrak, immigranteak benetan aurkeztu behar duena penalen egiaztapen negatiboa baizik ez delako. Beste horrenbeste esan dezakegu zehapen administratiboei dagokienez ere; hauen aipamenik ez du egiten Espainian dauden atzeritarren eskubide eta askatasunei buruzko 4/2000 Legeak, bizilekua izateko baimenen kontzesioa arautzen duenean.

Beste alde batetik, aipaturiko Datuak Babesteari buruzko Lege Organikoak bere 7.5 artikuluan xedatzen duenez, lege-hauste administratibo edota penalei dagozkien datu pertsonalak kasuan kasuko arautegietan aurreikusita dauden Administrazio Publikoen fitxategietan bakarrik sartu ahal izango dira. Artikulu horrek datuen kalitatearen printzipioaren exigentzia gorpuztea agintzen du, hots, helburu bat (zehapen edo zigorrezkoa) betetzeko jaso eta artxibatu diren datuak ezin erabil daitezke bestelako xede baterako (etorkinen arteen juridiko-soziala).

Laguntzak jasotzeari buruzko betebeharrak egiaztatzeako datuak lagatzea

Kontu hau Foru Administrazio batek planteatu duen arren, Euskadi Autonomia Erkidegoko Administrazio guztiei dagokie praktikan, jaso diren kontsultak ikusirik, beste hainbat administrazioetatik edo administrazio bereko beste hainbat zerbitzutatik datu-lagapenak eskatzea jeneralizatzen ari dela ondoriozta omen daiteke; esan gabe doa datu horiek inolako eragozpenik gabe eskura daitezkeela interesatuari berari eskatuta, DBLO urratu gabe.

Kontsultaren gaia izan den kasuren batean, zerga-alorreko helburuak betetzeko datuak administrazio bereko beste hainbat zerbitzutara eskatu izan zaizkio, laguntza batzuen kontzesioa egiteko ezinbestekoak ziren baldintzak bete ziren egiaztatzeako. Horrelakoetan, DBLOko 4. artikuluan jasotzen den datuen kalitateari buruzko printzipioak adierazten duenez, lagapen horiek datu babespenari buruzko arautegia urratu egiten dute. Azpimarratzekoa, ordea, laguntzak erregulatzen dituzten arauak (foru arauak, Printzipio Ordenaren Legea, Diru-laguntzei buruzko Lege orokorra) Administrazioa baimendu egiten dute bidezkoak diren egiaztapen-lanak egin ditzan eta, horretarako, beharrezkoak diren datuak eska ditzan; horrela, bada, Beste hainbat administrazio edo zerbitzutatik lagapenak eskatzeko premiarik ez da ikusten eta, gainera, baliteke lagapen horiek datuen babeserako funtsezko eskubidea urratzea.

Hildako pertsonen datuen lagapena

Eusko Jaurlaritzaren Osasun Sailak eta Borondatezko Gizarte-aurreikuspeneko Erakundearen Federazioak eginiko kontsultei erantzunez, bi irizpen eman ditu DBEBk 2007. urtean, kontu horri dagokiola.

Irizpen horiek, 2006. urteko 13 zk. Kontsultari zegokion irizpenean Bulegoak ezarritako doktrinari eusten diote, hark euskarri zituen funtsetan sakondu nahian.

Saiakera horren euskailuak bi hauek dira:

- Epaitegi Konstituzionalak 190/1996 Epaian (FD 2.) adierazi zuen doktrina, hara:
“Dударik gabe guraso, ezkontide zein seme-alabei jazo dakizkiekeen gertakizun batzuek, gure gizartearen kultura-ildoan barnean, gizabanakoarentzat biziki garrantzitsuak ohi direnez, behar ez bezalako publizitatea emateak edo bidez kontra hedarazteak gizaki horren nortasunean eragin zuzena dauka.”
- Eta hildako pertsonen datuez ñabardurak sartu zituen DBLO garatzeko araudi-proiektuak (egun, 1720/2007 Errege Dekretua).

Beste alde batetik, gai hauek direla eta, datuen babesari buruzko arauteria aplikatzeko modukoa ez den esparrua mugatzeko saiakerak egin izan dira, Bulego honek zuzen deritzon alderditik, hots, subjektibotik. Honela esan izan da: *“datua hildako pertsona batena den guztietan, identifikatua edo identifikagarria den beste pertsona bati “dagokion” informazioz ez badauka eta heriotzaren datuari bakar-bakarrik badoakio, datu hori laga ahal izateko eragozpenik ez legoke, datuen babesaren ikuspegitik edo DBEBk xedatzen duen bezala”.*

Bide elektroniko, informatiko eta telematikoak

2007 ekitaldian kontu horri arreta berezia eman dio DBEBk, gai hauetan funtsezkotzat jo daitezkeen bi proiektuari zegokion galderei ihardespenean irizpenen bitartez, batez ere:

- Eusko Jaurlaritza eta IZENPE S.A.ren arteko hitzarmena, herritarren eta administrazio publikoen arteko harremanetan txartel elektronikoaren erabilera sustatzeko xedez.
- Prozedura administratiboetan bide elektroniko, informatiko eta telematikoaren erabilera arautzen duen Dekretu-proiektua.

Lehen proiektuari dagokionez eta bertan aurreikusten diren hainbat eragiketaren ondorioz, Bulego honek irizpena egin ahal izateko zehatz-mehatz aztertu ditu bai abenduaren 19ko 59/2003 Legea, sinadura elektronikoari buruzkoa, baita ekainaren 22ko 11/2007 Legea, Zerbitzu Publikoetarako herritarren irispide elektronikoari buruzkoa ere, aipatutako proiektua Lege horietan nola uztar zitekeen ikusteko.

Lehenari dagokiola, proiektua 12, 13 eta 17 artikuluetan uztartzen zela egiaztatzeak proiektuaren egokitasuna bermatzen zuen, datu pertsonalen babesaren oinarritzko printzipioei aitorturiko egiaztapen elektronikoaren erabiltzeari zegokiola.

Bigarren legeaz ari garela, ekainaren 2ko 11/2007 Legea, Zerbitzu Publikoetarako herritarren irispide elektronikoari buruzkoa, hain zuzen, Bulegoari interesatzen zitzaion ikuspegitik, hots, txartelen hartzaileen nortasunaren bermeari eta aurreikusiriko erabilerei eman beharreko tratamenduen egokipenari zegokionetik (beste saihest bat, finean, helburu-printzipioarentzat aurreikusitako tratamenduen egokipena begiratzeko) proiektaturiko txartela aipatu Legeak taxutu zuen markoan ondo egokitzen zela ikusi zen, Administrazio Publikoek nozitu behar duten egokipena gorabehera, hauek ere, Legearen Hirugarren Azken Xedapena irakurtzetik ondorioztatu zitekeen bezala, hitzarmenean esku hartu baitzuten.

Azken buruan, bi lege horiek aztertutik eta proiektuaren baliagarritasun eta ezaugarriak —aintzat hartutako egiaztagiri elektroniko bat sartzea, funtsean— ikusirik, proiektatu txartelak bete behar zuen helburuaren arabera zela ondorioztatu zuen Bulego honek: alde batetik, eskatzailearen nortasuna behar bezain egokiro egiaztatzen zuen, eta horrek esan nahi zuen, datuen babespenaren ikuspegitik, behar ez bezalako sarrerak gertatzeko arriskurik ez izatea bermatua zegoela eta, beste aldetik, helburu-printzipiorako aurreikusitako prozedurak egokitzean edota 11/2007 Legearen terminoetan, prozesatu beharreko datuak “*behar-beharrezkoak bakarrik zirela, eskatzean adierazi den helburua kontuan izaki*”. (4. h) art.)

Bigarren proiektuaz ari garela eta egitasmo arautzailea zela kontuan izanik, Bulegoak berea duen ikuspegitik eragin gehien zeukaten kapituluak aztertu zituen.

Horrela bada, bertako II. Kapituluari (“*Bide elektroniko, informatiko eta telematikoen erabilerako printzipio eta bermeak*”) dagokionez, Bulego honen iritziz, printzipio eta berme horien artean, konfidentzialtasun eta segurtasuna egokiro integratuak zeuden.

Sinadura elektronikoa ardatz duen III. Kapitulua, berriz, Bulego honen aburuz ezarritako protokoloak pribatutasuna errespetatzen du eta Sinadura Elektronikoari buruzko Legearen 18 c eta 18 d artikuluan aurreikusitakotik haratagoko datu-lagapenik ez dago.

Bide telematikoen bitarteko datu transmisioaz eta egiaztagiri telematikoez ari den V. Kapitulua, datu pertsonalen babesaren ikuspegitik, helmen handienekoa zen, aurreikusiriko datu-transmisio asko, gure ikuspegitik, datu horien benetako jakinarazpenak ziren neurrian.

Ildo horretatik, “Balioztapen eta Hirugarrenengo Zerbitzua eta datu-transmisioen bermeak” eta “Administrazio Publikoen arteko datu-transmisioa” dokumentuei hainbat ohartarazpen egin zitzaizkien.

Irizpenaren amaieran, “Eskaera-agiri formalizatuak eta Dokumentuak Aurkezteko Formatuak” izeneko proiektuaz ziharduen VIII. Kapitulua formulazioaz aipamen positiboa egin zen.

Enplegatu publikoen datu pertsonalak ordezkari sindikalei lagatzeaz

Nabarmendu beharreko gaien artean, enplegatu publikoen informazio pertsonala beren ordezkari sindikalei lagatzeari dagozkion bi irizpen aipatu behar dira hemen.

Administrazio Publikoek ordezkari sindikalei transmititzen dizkieten datu-komunikazioen ondorioz, enplegatu publikoei zor zaien informazioarekiko autodeterminazio eskubidea zenbateraino gerta daitekeen urratu edo kalteturik, aztertzen da bi irizpenetan.

Kontu horri buruz azterketa sakona egin du DBEBk: lehen-lehenik, jokoan dauden oinarritzko bi eskubideei dagokien doktrina konstituzionala gainbegiratu du: datu pertsonalak babesteko eskubidea, 18.4 art. CE-tik eratorria, eta askatasun sindikalaren eskubidea, 28.1 CE artikuluan aintzat joa.

Horretarako, informazioarekiko autodeterminazio eskubidearen kontzeptua aztertu eta definitzen duten Epaitegi Konstituzionalaren 254/1993, 290 eta 292/2000 epaiak jorratu ditu; baita, era berean, azaroaren 11ko 231/2000 epaiak ere: honek, aurreko jurisprudentzia bildurik, askatasun sindikalerako eskubidearen edukia eta mugak definitzen ditu.

Ondoren, funtsean abuztuaren 2ko 11/1985 Lege Organikoan, Langileen Estatutuaren Legearen Testu Bateratua onesten duen martxoaren 24ko 1/1995 Errege Dekretuan, Funtzio Publikoaren Oinarritzko Estatutuari buruzko apirilaren 12ko 7/2007 Legean eta Euskal Funtzio Publikoari buruzko uztailaren 6ko 6/1989 Autonomi Legean jasoak dauden ordezkari sindikalen eskumen, ahalmen eta bermeak adierazten dira.

Azkenean, behin eta birritan aipaturiko Epaitegi Konstituzionaleko jurisprudentzia iruzkintzen, hots, inongo eskubiderik absolutua ez dela dioena (denen partez, Epaitegi Konstituzionalaren

156/2001 eta 70/2002 epaiak) eta bi eskubideen arteko lotura proportzionaltasun eta orekadun irizpideez ebatzi behar dela dioen doktrina.

Aipatu doktrina konstituzionalaren eta horri aplika dakioken markoaren arabera, oinarritzko bi eskubide horiek elkarren kontrako gertatzekotan nola jardun beharko litzatekeen interpretatzen ahalegindu da Bulego hau; horretaz, DBEB bat dator APDCM-k apirilaren 3 emaniko 1/2006 Aholkuarekin, baita AEPD-k 1993ko uztailaren 23an eta 2000ko martxoaren 19an emaniko txostenekin ere; irizpide horiek onartuak ditu Erakunde honek CN 11/2005 txostenean. Hona, hitzez hitz:

- Enplegatu publikoen datu pertsonalen lagapen jeneralizatua, interesatuek horretarako baimenik eman gabe, datu-babes kontuetako arauteriaren aurkakoa da, Legean aurreikusiriko kasuetan izan ezik.
- Horrelakoetan, DBLOko 3 f) artikuluan xedatzen den prozeduraren arabera, informazioa bereiziz gero edo datuen titularrak bere onespina emanez gero laga ahal izango zaie ordezkari sindikalei; baimen hori berariaz eman beharko da datuak berariaz babestutakoak direnean, Lege Organiko bereko 7. artikuluan xedatutakoa betetzeko.
- Ordezkari sindikalei jakinaraziko zaizkien datu pertsonalek bidezkoak, egokiak eta ez gehiegizkoak izan beharko dute, komunikazio horren helburua kontuan izaki.
- Datu pertsonalen defentsak eta askatasun sindikalak elkarrekin uztarturik ibili behar dute; oinarritzko bi eskubide horiek harmonizatzen ahalegintzea Administrazio Publikoen eginkizuna da.

3.2. Txostenak

Atal honetan aintzat hartzen dira:

- Legea garatzen duten ebazpen orokorren proiektuei buruzko txostenak, 2/2004 Legearen 17 h) artikuluan xedatutakoaren arabera, eta
- Nahitaez erantzuteko estatistikak determinatzen dituzten xedapen arautzaileei buruzko txostenak, 2/2004 Legearen 17 h) artikuluan eta DBEBren Estatutua onesten duen urriaren 10eko 309/2005 Dekretuaren 5 a) artikuluan xedatutakoaren arabera, eta
- bestelako kontuei buruzko ebazpen orokorrei dagozkienak ere, datu pertsonalen babesarekin lotuak badaude

2007. urtean lau txosten egin dira, hurrengo gaiez:

- Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Saileko datu pertsonalen fitxategiak arautzen dituen Agindua aldatzeko Agindu-Proiektua.
- Euskadi Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorreko eta bere Organismo Autonomoetako erregistroak sortu, antolatu eta funtzionatzeari buruzko Dekretu-Proiektua.
- Prozedura administratiboetan bide elektroniko, informatiko eta telematikoen erabilera arautzen duen Dekretu-Proiektua.
- 2008. Urteko Estatistika Programa onesten duen Dekretu-Proiektua

3.3. Ahoku emateko eta e-mailez, telefonoz eta bertatik bertara eginiko kontsultei erantzuna emateko bilerak

Gure jarduera janzteko hartu dugun izaera proaktibo horri jarraiki, Euskadi Autonomia Erkidegoko Administrazioarekin hamaika bilerak egin ditugu; bertan, obligazioen betetze formalari, datuen

babespenari buruzko arauteria zorrozki errespetatuz beren jarduera-esparruan hainbat programari ekin ahal izateko egin beharreko jarduerari eta beste hainbati buruzko aholkularitza eman zaie.

Bestalde, oraindik behar bezala egituratutako informazio-zerbitzurik ez dagoen arren, kontsulta asko jasotzen dira egunero eta, jakina, erantzuna berehala ematea da Bulegoaren asmoa. Era berean, e-postaz Administrazio Publikoek batik bat egin dituzten ehun kontsulta baino gehiagori erantzuna eman zaie 2007. urtean.

4. Kontrol-funtzioa

4.1. Babes-espedienteak

2/2004 Legearen 9.2 artikuluan aurreikusitako babes-eskubidea egikaritzearen ondorio diren espediente hauek adierazten dutenez, erreklamazioa egiten duenari aurkatzeko, eskuratzeko, zuzentzeko eta baliogabetzeko eskubidea egikaritzea ukatu egin zaio.

2007. urtean bederatzi espediente izapidetu dira; horietatik bati eman zaio ebazpena.

Babes-eskubidea sorrarazten duten kontuen ikuspegitik, datu pertsonalak eskuratzeko eskubideaz berebiziko interesa hautematen da. Adiera horretan planteatu diren kontu nagusiak hurrengoek buruzkoak dira:

- Poliziaren fitxategietan dautzan datuak eskuratzeko eskubidea ukatu izana dela eta, babesa eskatzea.
- Historia klinikoak eskuratzeko eskubidea ukatu izana dela eta, babesa eskatzea.

Administrazio publikoen aurrean herritarrei zor zaizkion eskuratzeko, zuzentzeko, baliogabetzeko eta aurkatzeko eskubideak egikaritzeko aukera, forma eta baldintzez herritar horren ezagutza urria ez ezik, zailtasun materialak eta, kasuren batean, administrazio horiek datuok emateko unean jarrera desegokirik ere hauteman da. Adiera berean, administrazioek behar bezalako erantzuna ematen ez diotenean eta zor zaizkion eskubideak egikaritzeko, herritarrek DBEBra babes eskean jotzeko aukera daulaka ez daki askotan.

4.2. Salaketak

Halakotzat jotzen dira, datu pertsonalak babesteko araudiaren kontrako jardueri dagokienez, pertsona fisiko nahiz juridikoek ezartzen dituzten erreklamazioak.

Guztira jaso diren 36 salaketetatik 9 ebazteko daude. Era berean, 2005 urteko salaketa bat eta ebazteko zeuden 2006ko 15 salaketak ebatzi dira.

Aurkezturiko salaketen bidez Bulegoari jakinarazi zaizkion egintzei dagokienez, Legeak urraketatzat harturiko jokabideen berri ematen dute, dela betebehar formalak ez betetzearekin (DBEBren erregistroan fitxategiak sortu eta inskribatzea), dela datu pertsonalak arauz kontrako eran prozesatzearekin (Bereziki administrazio beraren organoen artean edo administrazio ezberdinetako organoen artean egindako datuen lagapenak, edo administrazioak pertsona pribatu bati datuak lagatzea), dela datu pertsonalak biltzean informazio-printzipioa urratzearekin lotuak.

Beraz, salaketa-egileen kezka larrienek zerikusia izaten jarraitzen dute, bai beren datu pertsonalak fitxategi batean bilduko zirela ez jakitearekin, bai datu horiek lege-babesik gabe laga eta erabiliko ziren ustearekin.

4.3. Arau-hausteen espedienteak

Hauek dira 2/2004 Legearen 17 f) eta 24-1 artikuluetan aurreikusitako espedienteak eta arauz kontrako jarduerak gertatu diren egiaztatzeko formulatzen dira.

Arau-hausteengatik bederatzi prozedura ireki dira, guztira, eta horietatik lau amaitu ziren; gainerako bostak instrukzio-fasean geratu dira. 2007an, berriz, aurreko urtean irekitako bost prozedura ebatzi dira.

Sei arau-hauste hauteman dira: bat, larria, datu pertsonalak dauzkaten fitxategiak behar bezalako neurriak hartu gabe mantentzearren eta bost arau-hauste arin: horietatik lau, sekretua

urratzeagatik eta bat, datu pertsonalen fitxategia Datuak babesteko Erregistroan sar daitezen ez eskatzearren.

5. Hezkuntza ikuskaritza sektoriala

Ikuskaritza Sektorialen Prozedura-Eskuliburua

2007ko otsailaren 19an harturiko erabakiaren bidez, DBEBk aldian behin edo ofizioko Ikuskaritza Sektorialak egiteko Prozedura-Eskuliburua onetsi zuen Zuzendariak. Horko edukitik hurrengoak azpimarratuko ditugu:

- Ikuskaritza Sektorialaren helburua DBLOren hainbat ezaugarri komun dituen sektore horretan aurreikuspenak nola betetzen ari diren aztertzea da.
- Ikuskaritza adierazgarri batean egiten da, hurrengo eskemaren arabera:
 - o Ikuskaritza hastea
 - o Dokumentazioa aztertzea
 - o Ikuskaritza jardueren prestaketa, tokian bertan
 - o Ikuskaritza jarduerak egitea, tokian bertan
 - o Ikuskaritza txostenaren prestaketa, onespina eta banaketa
 - o Ikuskaritza amaitzea
 - o Ikuskaritzaren jarraipena egitea
- Eskuratutako ebidentziak batera aztertzen dira, aztertutako sektorearen arabera, eta, emaitza gisa, hautemaniko gabezia global edo estrukturalak adierazten dira eta, sektorea DBLOren eskakizunetara erabat egoki dadin, aholku batzuk formulatzen dira. Egoerak hala aginduko balu, jokamolde-kodeak edo praktika sektorial onen eskuliburuei heldzea sustatuko litzateke.

Hezkuntzako ikuskaritza sektoriala

Hezkuntzako ikuskaritza sektorialari dagokiola, honakoak izan dira 200ko egintzak:

2007-08-06	DBEBko Zuzendariaren erabakia, ikuskaritza sektoriala onetsiz
2007-09-28	Ikuskaritza sektoriala jalgitzeko bilera. Mintzakide Nagusiaren izendapena
2007-10-04	1. jarraipen bilera. Dokumentazioa eskatzea
2007-10-09	2. jarraipen bilera. Ikuskaritza Plana ostera formulatzea
2007-10-22	Hezkuntza-berrikuntzako Zuzendaritzarekin elkarriketa
2007-10-26	Erregimen Juridikoko Zuzendaritzarekin elkarriketa Hezkuntzako Lurralde-ordezkariekin elkarriketa Haurreskoletako Kudeatzailearekin elkarriketa

2007-10-29	Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako hiru Berritzegunetako Zuzendariekin elkarrizketa
------------	--

Jarduera horiez geroztik, gogora dezagun:

- Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerkuntza Departamentua ez zen gauza izan Ikuskaritzaren hasieran eskatu zitzaion dokumentazioa entregatzeko.
- Eskatu zitzaizkion datuak eskuratu ezinean, ikuskaritza sektoriala egiteko hasitako prozedura hein batez hutsaldurik geratu zenez, alferrikakoa da II. Etaparekin (*"Dokumentuen azterketa"*) aurrera jarraitzea. Beraz, aurreneko bileretan erdietsiriko datuak ikusirik, ondorengoa erabaki zen:
 - o Ezinbestekotzat jotzen diren elkarrizketak osatzea (*"Ikuskaritza-jarduera presentzialak"* aztergai duen IV. Etapa barruan),
 - o Ikuskaritza sektorialeko txostena egitera jotzea zuzenean (*"Ikuskaritza txostenaren prestaketa, onespina eta banaketa"* aztergai duen V. Etapan).
 - o Txosten horretan, bereziki, behar bezain zehazki eginiko aholku eta gomendioak sartuko dira, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerkuntza Departamentua datuen babes kontuetan indarrean dagoen legeriari erabat egoki dakion.
 - o Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerkuntza Departamentuak, DBEBk eginiko gomendioak ikusirik, Egintza Plan bat antolatuko du datuen babes kontuetan indarrean dagoen legeriari erabat egokitzeko. Departamentuak Plan hori diseinatu ahal izateko DBEBn laguntza eskatu ahal izango du. Plan horren exekuzioa 2008 urtean burutu beharko da.

2007. urtearen kondarrean plan sektorialaren diagnostikozko txostena bukatzeke geratu zen.

6. Datuak Babesteko Euskadiko Erregistroa


6.1. Informazioaren jatorria

Datuak babesteko Erregistroaren jarduera, fitxategiko adierazpenen eboluzioari dagokionez, **Datuak babesteko Euskal Bulegoa Zifratu**n Eranskinean agertzen da; bertan jasotzen diren tauletan agertzen dira Erregistroaren eboluzio historikoko datuak, fitxategi-mugimenduak, erakunde deklaratzailerak, deklaraturako fitxategiak etab. hainbat aldagairekin konbinatuak, hala nola lurraldea, administrazio-mota eta deklaraturako fitxategien segurtasun-gradua.

Kalkulu horietan erreferentziatzen da Datuak babesteko Erregistroan "fitxategiak inskribatu, aldatu edota suntsitzeko data" hartu da..


6.2. Inskripzio-eskabideak

2007. urtean, guztira, 1.768 mugimendu gertatu dira (izen-emate, aldaketa eta ezabapenak). Gehientsuenak fitxategi berrien inskripzioak izan dira (1.167, hots, %66); aldaketak 407 (%23) eta ezabapenak 194 (%11) izan dira. Horrek adierazten du (izen-emateak ken ezabapenak) Datuak babesteko Erregistroan beste 973 fitxategi daudela. Kontuan izan behar da fitxategien ezabapen gehienak ez direla datu pertsonalen prozesatzearen amaitzearen pareko; alderantziz, sortu berri den beste fitxategi batean integratzea edo hala bihurtzea jazotzen baita maiz



Eginiko mugimendu gehienak Udal Administrazioaren (855 mugimendu, hots, %49) eta Eusko Jaurlaritzaren Sail eta Erakunde Autonomoen artean (519 mugimendu, %29) banatu dira.

Aldameneko grafikoak erakusten du nola gertatu diren 2007. urtean zehar 1.768 fitxategien mugimendu horiek (inskrizioak, aldaketak eta ezabapenak).



6.3. Erakunde aitortzaileak



Datuak babesteko Erregistroan 966 fitxategi-arduradun agertzen dira eta horietatik gehienak (833, %86) Administrazio-organoak dira: %10, Organismo Autonomoak (94) eta %4, berriz, "bestelako forma juridikokoak" (38).

Fitxategi bakoitzaren deklarazioan Arduradunaren izendapena arreta osoz egiten den arren (Zuzendaritza Nagusi edo administrazio-dependentsia jakinei dagokiela), bidezkoa omen da horiek multzokatzea, Erakunde Aitortzaile Nagusia aintzat hartuta, hots, barne-egitura organikoari dagokiona bazterturik. Hortaz, Identifikazio Fiskaleko Kode desberdinak izatearen arabera kontsideratu dira organismoak, Eusko Jaurlaritzaren kasuan izan ezik, bertako Sail bakoitzak Erakunde Aitortzaile Nagusitzat jotzen baitu bere burua.

Horrela bada, Erakunde Aitortzaile Nagusiak 299 dira. Aurtengo datuak eta 2006. urtekoak alderatuz ikusten dugu 42 Organismo Deklaratzaile Nagusi berri direla aurtan.

Fitxategi-deklaraziorik egin ez duten udalei dagokienez, 2007. urtean oraindik 64 udalek ez dute inolako fitxategirik inskribatu DBEBn (2006. urtean 83 udal ziren). Horrek, %22,9ko murriztapena agertzen du. Urritze hori dezente eragin dute udalekin izaniko elkarriketek, horien ondorioz udal batzuek estreinakoz egin baitute fitxategi-deklaraziorik.

Bestetik, hainbat udalek, inskripzioa DBEBren Erregistroan formalizatu gabe ere, fitxategien deklarazio-ebazpenak zegozkien aldizkari ofizialetan argitara eman zituztela hauteman zen. Erakunde horietako batzuk egoera anormal hori 2007. urtean erregularizatu dute.




6.4. Fitxategien inskripzio eta ezabapenak

Euskadiko Datuak babesteko Erregistroan inskribaturik dauden fitxategiak 4.427 dira.


Iazko 973 fitxategi berri horiek gehiturik, Erregistroa %28,2 hazi da, 2006. urtearen aldean.

Ondoko grafikoak orain artekoan inskribaturiko 4.427 fitxategien saldo netoa (inskripzioak ken ezabapenak) agertzen du, inskripzio data ere zehazturik.




Azken hiru urteotan hainbat fitxategi suntsitu edo ezabatu dira, horien tratatzea amaitu delako edo fitxategi sortu berrietan txertatu direlako. Ezabaturiko 396 fitxategi horietatik 84 2005. urtean kendu ziren, 118 2006. urtean eta 194 2007. urtean.

Hurrengo grafikoak ezabaturiko fitxategiak agertzen ditu, inskribatutako urtea adierazita.



Eginiko ezabapenen ondorioz, inskribapen-urteari dagokionez fitxategi aktiboen kopurua aldatu egin da. Egoera berria ondoko taulak erakusten du.



6.5. Inskribatutako fitxategien banakapena: organismoak

Eusko Jaurlaritzaren Sail eta Organismo Autonomoek 777 fitxategi dituzte inskribaturik, hots, 2006. urtean baino 263 fitxategi gehiago. Hazkuntza handia gertatu da, beraz, aurreko urtearen aldean (%51,2).

Foru Administrazioan 35 fitxategi agertu direnez (%13,8), orain 89 fitxategi daude inskribatuta.


Udalak dira 2007. urtean jarduera intentsuena garatu dutenak: guztira 530 fitxategi berri inskribatu dira, hots, 2006. urtekoen aldean, %20,3ko hazkuntza. Berri horien artetik bizkaitarrak nabarmentzen dira, bai guztirako ekarpenari dagokionez, bai urteko hazkuntza-tasan ere, %40,7ko hazkuntza izan baitute.

Bestetik, "Udalez gaineko erakundeek" (partzuergo eta mankomunitateek) deklaraturiko fitxategietan gertatu den hazkuntza ikusgarria azpimarratu beharra dago: aurrekoan 31 fitxategi inskribatu zirelarik, oraingoan 119 dira.

Era berean, "Bestelako erakundeetan" inskribaturiko fitxategiak ere biziki ugaltu dira, 9 fitxategi izatetik 57 izatera iritsi baita; hemen, Ganbera eta Kolegio Ofizialen inskripzioak funtsezkoak izan dira.

6.6. Inskribaturiko fitxategien segurtasun-mailak


Segurtasun-mailarik deklaratu ez duten fitxategi kopurua hainbat erakundetan datuen babesari ematen zaion arretaren adierazletzat hartu dugu. 2007. urtean oraino 923 fitxategitan ez zen agertzen inongo segurtasun-maila deklaraturik; horrek esan nahi du aurreneko deklarazioa egin zenetik, 2001 baino lehenago alegia, eguneraketarik egin ez dela. Halaz ere, horrelako fitxategien kopurua %11,4z murriztu da (iaz baino 119 fitxategi gutxiago dira orain). 2006. urtean 1.042 fitxategik ez zuten deklaratu inongo segurtasun-mailarik.



Aurreko grafikoak aktibo dauden inskribaturiko fitxategien segurtasun-maila deklaraturik, fitxategiaren hastapeneko inskripzioa egin zen unearen arabera.

Grafikoan argi eta garbi ikusten da lehenago adierazitako eboluzioa: segurtasun-maila deklaraturik, geroz eta 2001 baino lehenagoko fitxategi gehiago dago, fitxategi horien aldaketari buruzko jakinarazpenak egitearen ondorioz.

Bestetik, hurrengo grafikoan DBEBren atarian ikusitako orrialde kopurua agertzen da (2005eko abuztuaz geroztik).



2005. urtean (abuztutik abendura bitartean) 77.732 orri ikusi ziren. 2006. urtean, berriz, 334.114 orri kontabilizatu ziren eta 2007an kopurua are eta gehiago igo zen: 438.882 orri, hots, 2006 urtearekiko %31,36ko hazkuntza gertatu zen.

7. Datu pertsonalen babesaren Euskadiko pertzepzioari buruzko azterketa eta txostenak

7.1. *Datuak babesteko agentziaren existentziaz eta pribatutasuna izateko eskubideaz herritarrek duten pertzepzio sozialaren gaineko azterketa kualitatiboa egitea*

Aresti arte 2003. urteko Eurobarometroaren gaineko txostenaren emaitza bakarrik ezagutzen zen; horren arabera, datuen babesaz Europan dagoen kontzientzia maila ez da garaia, populazioaren erdiak baino gehiagok ez baitaki datu pertsonalen babesarekin loturiko eskubiderik badagoen edo, bestela, ez da jabetzen horretaz.

Horregatik, Datuak babesteko Euskal Bulegoak (DBEB) 2007. urteko azken hilabeteetan estreinako azterketa hori egitea deliberatu zuen, euskal herritarrek beren datu pertsonalen babesaz nolako pertzepzio sozial zuten ezagutzeko. Erabilitako metodologia haxe izan da: eztabaida-taldeak (focus group) bitartez lau gizatalde antolatu dira, bertako partaideak adinaren arabera sailkatuak, hots, 18 - 21 urtekoak, 22 - 30 urtekoak, 31 - 45 urtekoak eta 45 urtez gorakoak.

Azterketaren helburu orokorrak

Azterketaren helburuak hauek izan dira:

- Datu pertsonalen babesarekin loturiko problematikaz nolako pertzepzio soziala dagoen ezagutzea.
- Adin-tarte desberdinetakoek (18-21, 22-30, 31-45, 45etik gorakoek) bereak dituzten diskurtso sozialak bereiztea eta gazteenek emaniko adierazpenei arreta berezia zuzentzea.
- Pertzepzio sozialaren eboluzioa neurtzeko aukera emango duen inkesta kuantitatibo bat diseinatzea bideratuko duen ezagutza baliagarria sortaraztea, populazioaren iritzi-egoeraren eta premien jarraipena egiteari esker.
- DBEBren kontrol-lana eta zerbitzuak orientatuko dituen ezagutza sozialeko lanabesa edukitzea, Euskadin bertan landutako informazioarekin osatuko dena.

Azterketaren emaitzak

Hona emaitzarik adierazgarrienak:

- Hasiera batean, behintzat, ez dirudi pertsonen asko inporta zaienik beren datu pertsonalen zaintza, beren pribatutasunaren aurkako mehatxuak eta horrelako kontuak, ez da hautematen arazo-kontzientziarik. Dena den, beren datu pertsonalak hirugarrengoa pertsona edo erakundeek nola erabiltzen dituzten "ikusten" dutenean ahuldade eta urrakortasun sentimendua agertzen da haien baitan.
- Datu pertsonalen erabilerarekin loturiko kontuetatik herritarra, oro har, gehien kezkatzen dutenak aldatu egiten dira adinaren arabera. Zaharrenek telemarketin edo urrutiko salmenta-teknika agresiboak era problematikoa atzematen dituzte; gazteak, berriz, posta elektronikoa eta Internetek egiten duten pribatutasunaren inbasioaz (desiratu gabeko mezu elektroniko edo spam ezagunak) eta telefono-konpainien publizitate-egintzez (batez ere, sms bitartez telefono mugikorretara egiten direnez) daude kexu.
- Beren datu pertsonalak nola gestionatzen diren galdeturik, herritarrek ez dakite zein diren beren eskubideak, ezta administrazioen eta enpresen obligazioak ere, hau da, egin daitekeena eta egiterik ez dagoena.

- Administrazioek datu pertsonalak nola maneiatzen dituzten eta mundu pribatuak nola maneiatzen dituen zeharo konfiantza-maila desberdinak sortarazten dizkiote populazioari. Herritarren iritziz, administrazio publikoek baliatzen dituzten datu pertsonalak egokiro zaintzen eta babesten dituzte; enpresek erabiltzeko eran, berriz, ez dute uste onik edo mesfidatzen dute, argi eta garbi.
- Herritarrek, beren datu pertsonalak inork eskatu aurretik, horren gaineko informazioa eman behar die baina ez dakite honen berri. Ez dakite, era berean, bere buruaren datuez administrazioei zein enpresei galde egin diezaieketela, ezta datu horiek, oker edo alferrikakoak direnean, zuzendu edo ezaba ditzaten eska diezaieketela ere.
- Herritarrak ez daki datuen babes kontuetan badirela bulegoak eta agintariak; areago, datuen babesa kontsumoarekin loturiko gaia dela uste du.
- Ez ezagutze edo ziur ez ezagutze hori gorabehera, beren eskubideen gaineko informazioa eskatzen dute herritarrek, nola egikari ditzaketen eta erreklamazioak egitera nora jo behar duten jakin nahi dute.

DBEBren konpromisoa

Azterketa honen bidez erdietsitako ondorioetatik abiaturik, Datuak Babesteko Euskal Bulegoa jakitun da, iristen zaiona baino informazio gehiago eskatzen du herritarrak eta, horrexegatik hain zuzen, Bulegoak datuen babesaren kultura hedabideen bitartez eta erakunde publikoekin elkarlanean zabaltzeko eta sustatzeko ahaleginak biderkatzeko konpromisoa hartu du.

7.2. Pribatutasunaz eta Bulegoa existitzeaz herritarrek duten pertzepzioari buruzko inkesta kuantitatibo bat diseinatzea

Aurreko inkesta kualitatiboaren emaitzetan oin harturik, 2008ko ekitalditik aurrera aldian behin egin litekeen inkesta kuantitatibo baten diseinuan hasi gara lanean; horri esker, pertzepzio sozialean eta gure jardueraren garapenaren emaitzetan egin diren aurrerapenak aztertu ahal izango ditugu

7.3. Administrazio publikoek eta enpresa pribatuek datu pertsonalen babesarekin loturiko jardueraz inkestak egiteko prestakuntza-lanak

Herritarrak nolako iritzia duen ezagutzeaz gainera, bai administrazioak, bai enpresak ere egiten ari direna eta nolako aburua duten ere jakin beharra dago. Adiera horretan, hori erdiesteko lanabesak diseinatzen ari gara.

8. Pribatutasunaren kontzeptua eta DBEBko jardueren hedapena, bai herritarren artera, baita Administrazio Publikoen artera

8.1. Datuak babesteko Euskal Bulegoak eskumena egikaritzen duen erakundeen aurreko aurkezpen kanpaina

2006ko azken hiruhilekoan eta 2007. urte osoan, Euskadi Autonomia Erkidegoko 251 udal gobernuekiko zuzeneko harremana mantentzea helburu zuen udalekiko bileren kanpainak aurrera egin zuen.

Bertan 130 pertsona baino gehiagok esku hartu zuten: gehienak udal idazkariak ziren eta, hein txikiago batez, alkate eta zinegotziak.

BILERAK UDALETAN 2007																							
Bilerak			Deitutako udal kopurua			Bertaratutako udal kopurua			Alkateak / Alkateordeak			Zinegotziak			Zuzendariak eta bestelako karguak			Idazkaria			Gainerako funtzionarioak		
A	B	G	A	B	G	A	B	G	A	B	G	A	B	G	A	B	G	A	B	G	A	B	G
4	11	8	45	105	76	32	88	53	4	15	6	0	8	2	0	10	5	25	61	42	1	33	21
23			226			173			25			10			15			128			55		

Hona bileren helburuak

- Erakundeko arduradunak, datuen babesari buruzko kultura berri bat finkatzeko garrantziaz sentsibilizatzea
- Datuen babesaren lege-markoa eta DBEB zertan den laburki azaltzea
- Bisitatu den erakundeetako bakoitzeko egoera aztertzea
- Kontu horiek direla eta, arduradunek nolako kezka edo arazoak dituzten bertatik bertara ezagutzea.

Udal hauteskundeak izan ondoren eta diputazioetan gertatu diren gobernu-taldearen aldaketak eginik, denekin egin dira bilerak (2007ko azaro-abendua)


8.2. Pribatutasunaz eta Bulegoaz hedapen-materialak

“Ba ote da zure intimitatea baino ezer pribatuagorik?”

Herritarren artean hauteman den informazio-premia oinarritzkoari erantzuna emateko “Ba ote da zure intimitatea baino ezer pribatuagorik?” tituluko 10.000 informazio-orritxo diseinatu eta editatu genituen..

Paperezko orritxo horietan honakoak identifikatzen dira: zein diren datu pertsonalak, nola baliatu behar dituzten enpresa eta administrazioek, nolako eskubideak dituzten pertsonak, nola egikari ditzaketen, datuak babesteko agentziek nolako eginkizuna betetzen duten eta nolako jarduerak dituzten, herritarren bizitza pribatua eta datu pertsonalen babesa bermatzeko zein eskubide dituzten.

Orritxoak herritarra artatzeko zerbitzuek eta administrazioen bulegoek banatu zituzten.



“Babestu zeure datu pertsonalak” egutegia

Beste alde batetik, euskal administrazio publiko guztien artean 2008 urteko 5.000 egutegi banatu ziren, “*Babestu zure datu pertsonalak*” lema agerian. Egutegietan DBEBk aurrekoetan baliatu izan duen motibo grafikoa eta Bulegoarekiko kontakturako informazioa agertzen da (helbidea, telefonoak eta web orria).



8.3. Datuak babesteko Euskal Bulegoa hedabideetan

Hedabide sozialek, DBEBk bere burua ezagutarazi ahala, geroz eta informazio gehiago eskatzen dute eta, horrekin batera, irratia, prentsa eta telebista agertzeko eta elkarriketak egiteko esku har dezagun eskatzen digute.

Hedabideekiko harremana nola ikusten dugun beraiei jakinaraz geniezaiei bertako ordezkariekin hainbat topaketa informal egin genituen. Bertan, honakoak jakinarazi zitzaizkien:

- jorratzen ari diren aferez eta amaiera eman bitartean, informaziorik ez emateko irizpide orokorra,
- pribatutasunaz eta datuen babesaz informazioa eta prestakuntza emateko interesa; gai horri buruzko hedapen berariazko zein orokorra helburu duen zeinahi elkarriketa edo eztabaidatan esku hartzeko jarrera bihurtzen da interes hori,
- datuen babesarekin zein informazio eta komunikazioaren teknologia berrien mehatxuarekin (adiera zabalenean) loturiko zeinahi gaitan "adituen" irizpidea ematen eskaintza.

2007. urtean DBEBko Zuzendariak telebistako tertulia batean, idatzizko prentsako sei elkarriketatan eta irratiko hamabi elkarriketatan hartu zuen parte. Idatzizko prentsan Bulegoarekin zuzenki loturiko hogeitau albiste plazaratu ziren, datuen babesari buruzko ohartxo batzuez gainera; azpimarra ditzagun, azken hauetatik, *Datuen Babesaren Europar Eguna eta Datuak babesteko Agentzia Autonomikoen IV. Topaketa*.

8.4. Datuen Babesaren Europar Eguna (2007ko urtarrilaren 28)

Urtarrilaren 28an Europar lehendabiziko aldiz "Datuen Babesaren Eguna" ospatu zen, Europako Kontseiluak, Europar Batzordeak eta Europar Batasuneko kide diren herrialdeetako datuen babes alorreko agintari guztiek sustaturik.

Datuen Babesaren Egun Europarra ospatzearen helburua, europar herritarren artean eguneroko bizitzan biziki presente dagoen gai honetan pertsonari zor zaizkion eskubide eta erantzukizunen berri izan zezaten bultzatzea izan zen.

Datuak Babesteko Euskal Bulegoak (DBEB) ere ekimen horretan parte hartu zuen, prentsaurreko batean ezagutarazi zituen bezala, hurrengo jardura hauekin:

- Kartel iragarleak osatzeko posterra egitea. Proiektu hau Gasteizko Udalarekin elkarlanean egin zen, erakunde horrek DBEBri eskaini zizkion berariazko 120 erakustokietan. Hona Gasteizek burutu dituen egintza ugarietako beste bat, pribatutasunaren eta datu pertsonalen babesaren gaiarekin kontzientzia maila handia erakutsi duena.
- www.avpd.es web orriaren aurkezpena
- Kazetari espezializatuarekin topaketak egin ziren datu pertsonalen babesari buruzko informazio ona izatearen garrantzia jakin zezaten eta hortaz sentsibiliza zitezten.

Europar Egunaren ospakuntzak hedabideen estaldura hobezina izan zuen bai idatzizko prentsari, baita irratia bidezko elkarriketei esker.



Datu-babesaren Europako Eguna

Día Europeo de la Protección de Datos



Datuak Babesteko
Euskal Bulegoa
Agencia Vasca de
Protección de Datos



8.5. Web orria

Web orria eguneratzea


Web orriko edukiak behin baino gehiagotan eguneratu izan dira eta, izan ere, eduki berriak ere sartu dira; horien artean azpimarra ditzagun:

- Dokumentazio saileko arauteria atalean, 2007ko oinarrizko arautegitzat jotzen dena jasotzen duen dokumentua sartu da,
- Dokumentazio sailean beste hainbat atal sartu dira:
 - o hedapen-dokumentuentzat
 - o DBEBk antolatzen dituen jardunaldi eta topaketetarako
 - o Beste hainbat erakunderen dokumentu eta esteketarako

Web orriko bisitariak

Ondoko grafikoak, Datuak babesteko Euskal Bulegoaren web orriak (www.DBEB.es) 2005eko abuztuan sortu zenetik gaurdaino izan dituen bisitarien kopurua agertzen du.

2005. urteko (abuzturik abendura arte) bisitariak 4.693 izan ziren. 2006. urtean 14.876 pertsonak bisitatu zuten orria eta 2007 urtean, berriz, 25.185 bisitari. Beraz, 2006. urtearen aldean zifra %69,30tan gehitu da.




Azal dezagun web orriaren bisitari kopurua onarturiko cookiek adierazten dutela.

2007ko urrian web orriaren bisitariak dezente ugaltu ziren: izan ere, urriaren 23 eta 24ean "Datuak babesteko Bulego Autonomikoen IV. Topaketa" gertatu zen, DBEBk antolatutakoa.

DBEBren atariaren bisitariak

Bestetik, berriz, ondoko grafikoan DBEBren atarian 2005eko abuztutik hona ikusitako orri kopurua agertzen da.



2005. urtean (abuztutik abendura arte) 77.732 orri ikusi ziren. 2006 urtean ikusiriko orriak 334.114 izan ziren eta 2007an, berriz, 438.882 ikusi zituzten; beraz, 2006 urtearen aldean zifra %31,36tan gehitu da.

8.6. Eleberri moduan narraturiko “Emazkidazu zure datuak” kontakizunak

EHUko irakasle eta idazle den Antonio Altarribari eskatu zitzaion narrazio batzuk idatz zitzaion, hurrengo bereizgarriak errespetatuz:

- **Gaia.** Pribatutasuna eta datu pertsonalen babesa.
- **Formatua.** Fikziozko kontakizun laburrak, bi hurrenkera egiteko aukera emango dutenak: alde batetik, haietako bakoitzaren irakurketa independentea egitea; bestetik, narrazio guztien irakurketa globala, denek komun duten narrazio-egitura bat eta bera izan behar baita.

Horren emaitza, “Emazkidazu zure datuak” titulu orokorreko narrazio-bilduma izan da; idazlana honako narrazio hauek osatzen dute: Datu hilgarriak; Cyberkiller; Neu; Ingelesa gainditu gabe; Confidential Queen; Vigila-arte; Amesturiko etxea; Buruzagia; Showa; Amaren izena.

Narrazio horiek etorkizunean bola hedatu eta erabiliko diren, hurrengo aukerak aztertzen ari gara:

- Narrazio bakar bat edo horren parte bat irakurtzea, baliabide gisa, informazio-aurrezpenen bat edo prestakuntza-jardura bat dela eta.
- Narrazio-liburu formatuan editatzea, interesa pizteko eta arduradun publikoek datu pertsonalen babesaren garrantzia hobeki uler dezaten ahalegintzeko.

9. Datu pertsonalen babesa euskal hezkuntza-sisteman

9.1. Oinarrizko Hezkuntzaren Euskal Curriculumari DBEBk eginiko ekarpenak

2007. urteko otsailean Datuak babesteko Euskal Bulegoak Eusko Jaurlaritzaren Hezkuntza Sailari bilera bat izatea eskatu zion, Oinarrizko Hezkuntzaren Euskal Curriculumaren Dekretuaren Idazpen-proiektua ezagutu ahal izateko eta, bidezkoa balitz, curriculumari egin zekizkiokeen ekarpen batzuk bertako arduradunei jakinarazteko xedez; egin zitezkeen jarraibide horiek, jakina, eguneroko bizitzan haur eta gaztetxoei informazio eta komunikazioaren teknologia berriak baliatzen irakasteko beharrezkoak baitira, baina, hori bai, beren alor pribatuan ahalik eta arrisku gutxien izanik.

DBEBren ekarpen horien ikuspegia batez ere psiko-hezitzailea da. Oinarrizko premisa, **hautzaroan bertan bizitza pribatuaren balio positiboa eta pribatutasuna izateko eskubidea ikastea eta horretan hezte da**, garapen kognitibo, emozional eta sozialaren aurreneko etapa horietantxe eraikitzen baita nortasun pertsonalaren eta bestearenganako errespetuaren sena.

Hortaz, bizitza pribatua errespetatzearekiko koherentziadun jokabideen euskailuak, besteak beste, balio eta jarrerak dira, hala nola norberaren pribatutasunaren senaren balio intrintsekoa, enpatia eta benetako pertsona-izaerari aitorturiko balioa.

Azken finean, herritarrak izaera sozial eta digitaleko testuinguru berrietan ere elkar komunikatzeko eta elkarrekin bizitzeko gauza izan daitezen eskatzen du gizarteak baina, horretarako, bizitza pribatuarenganako errespetua eta horren balio positiboa garatu beharra dago.

Oinarrizko Hezkuntzaren Curriculumeko Gaitasun-Sisteman “bizitza pribatuaren balioa eta errespetua” ikastea

Datuak babesteko Euskal Bulegoak datu pertsonalak babesteko funtsezko eskubidearekin loturiko **erdietsi beharreko jokabide berria** deskribatzea proposatu du eta honela defini daiteke: “norberaren eta hirugarrengoen gainerako informazioa ororen bizitza pribatua errespetatuz hartzea eta, batez ere, Internetek eta bide elektronikoen bitarteko komunikazioak dituzten arriskuak bereziki zainduz”.

Oinarrizko Hezkuntzaren Curriculumari buruzko Dekretuko 7. artikuluan aipatzen diren oinarrizko gaitasunak direla eta, horietako bi —d) informazio eta gaitasun digitalaren tratamendua eta f) gizartearen eta herritarren gaitasuna— omen dira, trebetasun praktikoek, ezagutzen, balioen, emozioen eta beste hainbat osagai sozialen arteko konbinazio eta mobilizazioaren bitartez, horrela definitzen den jokabide berriaren agerpen eta finkapenarekin lotura hertsiena dutenak.

Oinarrizko gaitasunak **jakintza eta gaien areetan** ez ezik era guztietako eskolako eta eskolaz kanpoko esperientzietan lanean jardunez eskuratzen direnez, Oinarrizko Hezkuntzako etapa bietako ikasgai zenbaitetan helburuak, ebaluazio-adierazleak eta edukiak ezar daitezke, pribatutasunaren aurreko errespetua ez ezik, horren zaintza edo babesa ere barneratzea ahalbideratuko luketen ikaskuntza-bizipenak planifikatu eta ebaluatzeko. Hona hemen ikasgai horiek:

- **Lehen Hezkuntzan:** Hiritartasun eta giza eskubideetarako hezkuntza, hirugarren zikloko azken ikasturtean, hain zuzen (adina: 11 urte)
- **Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan:** Hiritartasun eta giza eskubideetarako hezkuntza; Hezkuntza etiko-zibikoa; Teknologiak; Informatika. (Ikasgaiak irakatsiko zaizkie 12 urtetik 15 urte bete arte, biak barne).

Helburuak, ebaluazio-adierazleak eta edukiak jakintza-alor batzuetan bakarrik ezartzeko planteamendu honek ez du adierazten datu pertsonalak babesteko eskubidearekin loturiko

jokabideak curriculum-eskarmentu horien bitartez bakar-bakarrik jaso daitezkeenik. Alderantziz, ikasgai guztiek, bakoitzak bere graduan, gaitasun denak eskuratzen laguntzen dute. Dena den, edukien eta helburuen arteko uztartze soileneko jakintza-areak soilik hautatu dira hemen.

Datu pertsonalak babesteko eskubidearekin loturiko ekarpenak, azkenean Hezkuntzaren Euskal Curriculumuma osatuko dutenak

Oinarrizko hezkuntzaren curriculumean sartzea proposatzen ziren helburu, eduki eta irizpide eta ebaluatzeko adierazleak idazteko proposamenak 2007ko maiatzean entregatu zitzaizkion Hezkuntza Sailari. Ekarpenguztiek balorazio positiboak egin dira eta, hortaz, curriculumean sartu dira baina horietakoren bat helburu orokorragoen parte edo elementutzat txertaturik.

Ondoren, onetsitako Oinarrizko Hezkuntzaren¹ Curriculumaren Dekretutik, adibide gisa eta ikasgai berrienetako bati dagokionez, bizitza pribatua babesteko hezkuntzan eragin handiena duten elementuak ekarri ditugu hona.

- Hiritartasun eta Giza Eskubideetarako Hezkuntza

Sarrera

(...)

Era berean, pribatutasunak bizi dituen baldintza berriak ere kontuan hartu beharko da, teknologia elektroniko eta digitalen garapenaz geroztik, batik bat. **Hiritartasun kontzeptuak bere baitan besteren pribatutasunaren eta horri dagozkion datuen tratamenduaren aurreko errespetuaz gainera, norberaren pribatutasunaren eta honen urraezintasunaren balioaz jabetzeko beharra jaso behar du. Alor pribatuaren eta publikoaren eta horietako jardun-eremuen arteko oreka egokia** norberaren pribatutasuna eta Giza Eskubideen unibertsaltasuna elkarrekin uztartzen dituen hiritartasunaren interpretazioa ulertzeko klabeetako bat izango da.

(...)

- o Helburuak

Giza izaera bere gizarte- eta norbanako-izarian aintzat hartzea, nork bere izaera eta gainerakoena onartuz, bere alor pribatu eta guzti, gizakien arteko desberdintasunak eta bakoitzaren pribatutasun eremua errespetatzeko eta auto-estimazioa garatzeko.

(...)

- o Edukiak

2. Blokea. Elkarbizitza

(...)

Pertsonen arteko desberdintasunak komunikazio-gune elektroniko berrietan. Bizitza pribatua eta datu pertsonalen babesa.

- o Ebaluatzeko irizpideak

¹ Urriaren 16ko 175/2007 Dekretua, Oinarrizko Hezkuntzaren Curriculumuma Euskadi Autonomia Erkidegoan finkatzen duena.

1. Gizakien arteko desberdintasunak eta norberaren pribatutasuna gizakiaren ezaugarri gisa eta bereizgarri positibotzat aitortzea, eta horietan oinarri daitezkeen era guztietako diskriminazioak gaitzestea.

(...)

1.2. Nork bere nortasuna eta gainerakoena, beren alor pribatu eta guzti, positiboki baloratzea.

Bestelako ikasgaietan sartu diren helburu, eduki eta ebaluatzeko irizpideak Dekretu horren testuan irakur daitezke.

Oinarrizko Hezkuntzan curriculuma ezartzeari DBEBk etorkizunean egingo dizkion ekarpenak

Datuak babesteko Euskal Bulegoak haur eta gaztetxoek hezkuntzan diharduten eragileei bere kolaborazioa eskaini nahi die, bai Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailari, hezkuntza-planen onespenez lanetarako, baita biharko hiritarren gaitasunak, elkarrekin bizitzen eta bizitza pribatuak babestuz eta errespetatuz, hobetzen lagunduko dituzten ikasgaiak eratu eta irakasteko ardura duten irakasleei ere.

Adiera horretan, DBEBren kolaborazioak mesede egin diezaioke, besteak beste, datu pertsonalen babesarekin loturiko ezagutza, trebezia eta jarreretan, oinarri eta sostenguzko hainbat material didaktiko sortzeko helburuari.

9.2. EHUrekin batera, ikaskuntza-planetarako ekarpenak eratuz

Bulegoan, unibertsitateko eta unibertsitatez kanpoko irakaskuntzan esku hartzea ezinbestekoa dela uste dugunez, EHUko arduradunekin kontaktuak izan ditugu, hurrengo helburuetara iristeko gure jarduerak nolakoak izan behar duten aztertzeko:

- Datu pertsonalen babesa ikaskuntza planen edukian aintzat hartzea (gaiarekin lotura hertsiena duten titulazioetan).
- Datu pertsonalen babesari dagokionez, EHUko titulazioetan eskain litekeen guztientzako modulu bat aztertzea

10. Datu pertsonalen babesaz sentsibilizatzeko eta prestakuntzan jarduteko materialak sortzea

10.1. Enplegatu publikoak prestatu eta sentsibilizatzeko bideoa

Bulego honen irizpidez, gainerako Agentziekin elkarlanean jardun beharra dago bertako funtzionarioak sentsibilizatzeko. Horretarako, Kontroleko beste hainbat Agintarik ekoitzitako material batzuk ebaluatu ostean, Bulegoak Information Commissioner's Office-ri (ICO, datuen babes-alorreko agintaritza britainiarrari) erakunde horrek ekoitzitako bideo bat euskara eta gaztelarrera itzultzeko baimena eskatzea erabaki zuen, biziki interesgarritzat jo baikenuen.

Lizentzia emanik, datuen babesaren printzipioetarako sarrera dramatizatu laburra agertzen duen bideoaren bikoizketa eta edizioa egin ziren. Etorkizunean, langileak prestatu eta sentsibilizatzeko programa baten osagai modura erabiltzea deliberatu dugu, era horretan legezko betebeharrak eta praktika egokiekin ohitzen Administrazioentzat lagungarri izan dadin:

- **Títulua.** Argia piztu da ... Datu pertsonalen babesa betetzen
- **Iraupena:** 22:26 minutu
- **Ikusteko aukerak.** Osorik, kapituluka (11 atal), azpтитuluekin edo gabe, gaztelaniaz, euskaraz.
- **Galdetegiak.** Bi galdetegi dauzka bideoak (batak erantzun-aukerak ematen ditu; besteak, egia/gezurra ereduaukerak)

Lehen edizioan 1.000 ale atara dira, euskal herri administrazio denetako zuzendarien artean eta, horietan, datu pertsonalen babesarekin edo prestakuntzarekin loturiko funtzioetan diharduten pertsonen artean banatzeko.

10.2. Funtzionario publikoarentzako oinarritzko gida egiteko agindua eta koordinazioa

DBEBk enplegatu publikoentzako datu pertsonalak babestu eta kudeatzeko oinarritzko gida moduko bat egitea deliberatu du, datu pertsonalak prozesatzearekin loturiko lan-prozeduren aldaketa sostengatu eta mantentzeko xedez. Hona erabaki hori hartzeko arrazoi nagusia: gai hauen gaineko publikazioak datuen babes alorrean rol aktiboetan diharduten pertsonen zuzenduen daudela baina zeinahi enplegatu publikok bere burua prestatzeko zein kontsulta egiteko edo, bestela, pertsonen gaineko informazioa kudeatzeko prozedura berrien ezarpenean ari diren irakasleek eta bide-e-maileek balia lezaketen oinarritzko gidarik ez dago.

Enplegatu publikoentzako datu pertsonalak babestu eta kudeatzeko oinarritzko gidaren idazketa 2006ko urrian hasi zen eta 2008an ere iraungo du.

Gidaren egiturari dagokiola, hor bereizi behar ditugu kudeatzen ari den pertsonen gaineko informazioaren eskaera, prozesua, komunikazioa eta kalitatearekin loturiko ohiko lan-egokierak eta, bestetik, baliaturiko komunikabideak (telefonoa, paperezko dokumentuak, faxa, Internet, etc.). Era berean, datu pertsonalen kudeaketan dautzan hiru harreman-mota hartu behar ditu aintzat: enplegatu publikoa eta herritarren arteko harremana; administrazio publikoa eta gainerako administrazioen arteko harremana, eta enplegatu publikoen eta lanean ari diren administrazioen arteko harremanak.

Edukiari dagokiola, balizko neurri tekniko eta antolamenduzkoen eredu edo adibide-e-maileak ez ezik, lanean laguntzeko tresnak ere eratu behar dira.

10.3. Biomedikuntza alorrean osasunari dagozkion datu pertsonalak prozesatzeko Praktika Egokien Gida

Lan-prozeduretan aldaketa ahalbidetuko duten materialak eskuratzeko xedez, Giza Genomaren Katedrarekin “unibertsitate-enpresa” motako kontratua negoziatu da, erakunde horrek biomedikuntza alorrean osasunari dagozkion datu pertsonalak prozesatzeko Praktika Egokien Gida bat egin dezan.

Agindutako lanaren **helburuak** hauek dira:

- Biomedikuntza alorreko profesionalei pazienteen eta ikerkuntza-subjektuen osasunari buruzko datu pertsonalen tratamendua erraztuko dien lanabesa egitea eratzea.
- Euskadi Autonomia Erkidegoan, biomedikuntza jardueraren markoan osasunari dagozkion datu pertsonalen tratamenduan aplikatzekoak diren arauak sistematizatzea.
- Euskadi Autonomia Erkidegoan, pazienteei eta ikerkuntza-subjektuei zor zaien informazioaz autodeterminatzeko funtsezko eskubidea errespetatuko dela bermatzen laguntzea.
- Osasunari buruzko datuen babes-kontuetan herritarra babesten duten eskubideen pertzepzio sozialean laguntzea eta, era berean, kasuan kasuko eskumenak egikaritzeko bideak ezagutaraztea.
- Datuak babesteko Euskal Bulegoaren eskumenekoak diren areetan erakundea presente egon dadin laguntzea.
- Jardunbide baterakorrak dituzten erakundeen arteko elkarlanean loturak sendotzea.

11. Euskal Administrazio Publikoetan datu pertsonalen babesarekin zerikusia duten proiektuetan aldaketak sortzea

“006ko Oroitidazkia aurkeztu genuenean adierazi genuenez, Bulegoak bi lan-talde bultzatu ditu bata EUDElekin, alegia, Euskal udalen elkartearekin, eta, bestea, Euskal Herriko Unibertsitatearekin- jakiteko zein diren, datuen babesaren dela-eta, egoera ohikoenak erakunde horietan, eta, beste alde batetik, Praktika Egokien Eskuliburuak edo araudiak proposatzeko, araudia “egokitzearen” aplikatu behar den errealitateetara.

Hori hala izanik, esan behar dugu lan-talde horiek lan itzela egin dutela eta bukatzearen dela egin beharra.

11.1. Euskadiko Toki Erakundeetako Jardunbide Egokien Eskuliburuaren bukatzearen.

Lan-taldean parte hartu dute EUDEleko ordezkariak, DBEBren ordezkariak, eta Vitoria-Gasteiz, Basauri, Getxo, Ermua, Eibar eta Beasaingo ordezkariak ere. Hamabi bilera baino gehiago egin dira, 14 hilabeteko epean.

Lan-taldeak Euskadiko Toki Erakundeetarako Jardunbide Egokien Eskuliburuaren proposamena egin du, EUDElek bere egin dezan. Honakoa da **edukia**:

- Jardunbide Egokien Eskuliburuaren Alderdi xedatzailea
 - o I Titulua. Xedapen orokorrak
 - o II Titulua. Herritarren eskubideak
 - o III Titulua. Administrazioaren eta bere langileen obligazioak
 - o IV Titulua. Datu pertsonalen babesaren eskubide eta beste eskubide batzuen arteko lehia
 - o V Titulua. Balizko egoera jakin batzuk
 - o VI Titulua. Datuak Babesteko Euskal Bulegoa
 - o VII Titulua. Honako eskuliburu hau kode-eredu gisa
- I Eranskina. Balizko egoera jakin batzuk
- II Eranskina. Dokumentu-ereduak eta prozedura-eskemak
- III Eranskina. Segurtasunerako dokumentu-ereduak
- V Eranskina. Aplikazio-araudia

Jardunbide Egokien Eskuliburuak **Kode izaera du Euskadiko Toki Erakundeetarako**, eta helburu du datuak babesteko araudian ezarritakoa egokitzea EAEko toki erakundeek egiten dituzten tratamenduen ezaugarrietara, eta, beste alde batetik, datuak babesteko alorrean kontzientziazio-maila areagotzea ere bai. Edukien artean, azpimarratzekoak dira **eredu praktikoak**, toki erakundeetara egokitu daitezkeenak, eta horietan erabili, bai eta **balizko egoera jakin batzuk** ere; azken horiek erantzuna ematen diete datuen babesaren inguruan egunero gertatzen diren egoera batzuei. Kode eredu hori dela-eta, honakoa nabarmendu behar dugu:

- Euskadiko Udalen Elkarteak (aurrerantzean, EUDEL), formulatu eta sustatzen du Jardunbide Egokien honako Eskuliburu hau.

- Datuak Babesteko Euskal Bulegoari aurkeztuko diote. Bulegoak aztertu egingo du, bai eta erabaki ea inskribatu daitekeen Datuak Babesteko Euskadiko Erregistroan ere.
- EUDELen ardura izango da Jardunbide Egokien Eskuliburuari nahikoa publizitate ematea. DBEBk ere emango dio publizitatea, bere WEB orriaren bidez.
- EAEko edozein tokiko erakunde atxikiko ahal izango zaio, honako prozedura honi jarraituta betiere:
 - o Atxikimendu-hitzarmena onartzea eta, hala badagokio, eranskinak egokitzea dagokion tokiko erakundearen errealitatera.
 - o EUDELi atxikimendu-hitzarmenaren berri ematea.
- EUDELek atxikitzeke tokiko erakundearen zerrenda eguneratuko du. Zerrenda hori DBEBren esku jarri beharko da, eta Eskuliburuaren VII. Eranskinean gehituko da, izena inskribatu eta sei hilabetera.

2007 ekitaldia bukatu zenean, Eskuliburua onartzeko zegoen EUDELen organoetan, eta DBEBra bidali gabe zegoen, Bulegoak Datuak Babesteko Euskadiko Erregistroan inskriba zezan.

11.2. UPV/EHUko Datu Pertsonalen Babesaren Araudiaren Idazketa

Euskal Herriko Unibertsitatearekin datuen Babesaren inguruko lankidetzak hasi zen 2006an, eta hasierako helburua zen Praktika Egokien Gida bat eratzea.

Gida hori praktika egokien alorreko ekimen zabalago batean sartu behar zela aurreikusi zen, inplikaturik zeudenak –Administrazio eta zerbitzuetako langileak eta irakaskuntza edo ikerkuntzako langileak eta ikasleak– bere egin zitzaizkion datu pertsonalen kudeaketako praktika horiek.

Taldearen lan-metodologian izan dira aldizkako bilerak (guztira 3, talde osoarenak), kide guztien banakako lana, eta talde txikitik astez aste egin da lan, lankidetzan, posta elektronikoaren eta telefonoaren bidez, informazioa emateko, galderak egiteko eta arazoak ebazteko.

Gida edo araudi bat idaztea zen lehen helburua, eta bide horretan zailtasunik handien izan da datuen gaur egungo kudeaketa-praktikak UPV/EHUko zeharkako zenbait organo tartean sartzen dituztela, eta horiek informatu eta onartu egin behar dituzte datu pertsonalen kudeaketa-praktika berriak, horiek arautzea proposatzen baita. Hainbat prozeduratan halako inplikazioa izateak ekarri du praktikak erregulatzeko epeak luzatzea, adibidez, Ikerkuntza datuen tratamenduan.

Egindako araudiak badu xedatze arlo bat, 6 titulutan eta 68 artikulutan banatuta: Datu pertsonalen Tratamendua lantzen da (datuak biltzea, interesdunen eskubideak, datuak jakinaraztea eta tratamendua egin behar duen arduradunaren irudia), fitxategiei dagozkien baldintza formalak, datuak babesteko arduradunak, segurtasun neurriak eta Datuak Babesteko Euskal Bulegoa.

Beste alde batetik, eranskinez osatutako bi atal ere baditu. Pribatutasunarekin zerikusia duten ereduak, dokumentuak eta hitzarmenak daude hor, eta egoki iritziz gero, aldatu egin daitezke; aldaketak egiteko prozedura oso erraza da. I Eranskinek informazioa ematen dute ereduak eta datuen babeserako informazio osagarriari buruz: informazio-klausulak, adostasuna baliogabetzea, sartzeko eskubideak egikaritzeko ereduak, aldaketak eta abar., UPV/EHUk aitortutako fitxategiak, eta automatizatutako eta automatizatu gabeko fitxategiei ezar dakiekeen segurtasun-neurriak biltzen dituzten taulak. II Eranskinek balio dute arautzeko datuen tratamenduen balizko kasu jakin batzuk arautzeko: kanpoko erakundeek UPV/EHUri datu batzuk eskatzea, azterketen noten publizitatea, erreferentzia pertsonalak, irakaskuntza-jarduera, matrikulatzeko klausula ereduak...

Bada alderdi garrantzitsu bat eragotzi duena Araudiaren behin betiko zirriborroa bidaltzea UPV/EHUko organoei, onar dezaten, 2007ko abenduan: abenduaren 21ean onartu zen 1720/2007

Errege Dekretua, indarrean dagoen Datuak Babesteko Lege Organikoaren garapenaren Araudia onartzen duena. Hala ere, UPV/EHUren etorkizuneko arau horrek, barneko organoetan onartzeko prozesuan denak, bere baitan biltzen ditu Lege Organiko berrian ezarritako guztia. Lege berria 2008ko urtarrilaren 19an argitaratu da, eta indarrean sartuko da 2008an zehar.

Horrez gain, proiektua ezartzeko planari ekin zaio fakultate edo unibertsitate-zentro jakin batean, eta pertsonen informazio-kudeaketaren prozedurak aldatzeko esperientzia horretatik abiatuta, diseinatutako plana egokitu egin ahal izango da, bai eta zabaldu Unibertsitate osora ere.

11.3. Haurreskolak Partzuergoan prestakuntza-planaren garapena planifikatzen

HAURRESKOLAK Partzuergoa izaera publikoko erakunde bat da, Eusko Jaurlaritzak eta EAEko udalek eratua. Helburuen artean du Haur Eskolen kudeaketa integrala eta lurralde-esparruko udaletan hiru urtetik beherakoei laguntza eta hezkuntza eskaintzea. Partzuergo hori eratu izanak ekarri du EAE aitzindari izatea, eta eredu propioa, berariazkoa eta bakarra izatea, adin horretako haurrek eta beren familiek dituzten beharrei erantzun egokia eta kalitatezkoa eman ahal izateko.

HAURRESKOLAK Partzuergoak eta Datuak Babesteko Euskal Bulegoak badakite sektore horretan erabiltzen diren datuen erabilera, batez ere gurasoei dagozkienak, bete-betean sartu behar dela legearen barruan, eta hori ez ezik, familiaren izen ona eta intimitate izateko eskubidea aintzat hartzeko jarrera eta jokabideetan sakonduko dituzten praktikak bultzatu behar direla. Hala bada, hitzarmen bat negoziatzen hasi ziren, mekanismoak ezartzeko eta Haurreskolak erakundeko langileek jakin dezaten datuak babesteko arauak zein diren, bai eta arlo horren inguruan sentsibilizazioa eta prestakuntza areagotzeko ere. Honakoak izan ziren konpromisoak:

- Prestakuntzarako edukiak diseinatzea eta laguntzarako materiala sortzea datuen babesaren inguruan, betiere Haurreskoletako langileei egokituta: administrazioako langileak, Zentroko koordinatzaileak eta hezitzaileak.
- Prestakuntza-, informazio- eta sentsibilizazio-plana zehaztea eta egitea langile horientzat, urte betez garatuko dena.
- Prestakuntza-, informazio- eta sentsibilizazio-protokoloa zehazte eta egitea, langile berrientzat.

12. Beste administrazio, bulego eta erakundeekiko lankidetzak eta harremanak

12.1. Parte hartzea nazioarteko foroetan

Datuak Babesteko Europako Agintarien Biltzarra – Udaberriko Biltzarra

Datuak Babesteko Euskal Bulegoak parte hartu zuen, akreditatuta baitago honakoan:

Maiatzean (10ean eta 11n) Txipren egindako **Datuak Babesteko Europako Agintarien Biltzarra – Udaberriko Biltzarrean**. Honako arlo hau ingurukoak izan ziren txostenak:

- Osasuneko fitxategi elektronikoak
- Datuen Babesaren etorkizuna
 - o Pribatutasun globala hobetzea
 - o Europako Pribatutasun zigilua edo egiaztagiria.
- Datuen Babesaren hirugarren zutabea (Justizia eta Polizia).
- Europako erakundeak eta datuen babesa
- Poliziaren lan-taldea (PWP)
- Gaur egungo gaiak
 - o Haurrak eta datuen babesa
 - o Mugaz gaindiko datuak eta terrorismoaren aurkako borroka: Belgikaren ikuspuntua azken garapenen aurrean
 - o Istiluak Budapesten.
- Hedabideak eta Datuen Babesa
- Nahas-mahas
 - o Case Handling Workshop-i buruzko txostena
 - o Poliziaren Lan-taldeari buruzko txostena
 - o Data Protection Review: APDCMren Pdko aldizkaria ingelesez (lau hilean behin)
 - o Datuak Babesteko estatuetako agentzien urteko azterketa globala (eskumenak, antolakuntza eta jardura)

Biltzarrean hiru agiri garrantzitsu onartu ziren, polizia-esparruaren barruko datuen babesari buruzkoak:

- Prestasun Printzipioaren Aitorpena, Posizio Komunaren eta txeko zerrendarekin batera.
- Krimeen-arloan epaileen eta polizen arteko lankidetzan prozesatutako datuen babesaren erabakitzeko-esparru baten zirkulazioaren kontseiluaren proposamenari buruzko Aldarrikapena.
- Poliziaren lan-taldearen etorkizunari buruzko Erabakia. (Police Working Party o PWP). Lehendakaria eta lehendakariordea aldatzea eta izena ere aldatzea. Police Working Parte a izatetik pasatu da Working Party on Police and Justice izatera (Polizia eta Justiziari buruzko lan-taldea)

Horren gaineko informazio gehiago nahiz izanez gero, joan Annual Spring Conference of the European Data Protection Commissioners, taking place on the 24th April and 25th April, 2006 in the capital city of Hungary, Budapest. <http://abiweb.obh.hu/dpc/springconference2007> URL-ra.

Datuak Babesteko Europako Agintarien Biltzarra – Udazkeneko Biltzarra-

Nazioarteko Biltzarra (29th International Conference of Data Protection and Privacy Commissioners) Montrealen egin zen irailean (25-28). Izenburua izan zen **Pribatutasunaren**

aukerak – Terra Incognita; Kanadako Kontrol Agintaritzak (Federal Privacy Commissioner) antolatu zuen.

Biltzarrean agerian geratu zen teknologia indarra handituz doala, eta pertsonen arlo pribatuan sartzen ari dela, hala edo nola “zelatatzen” dituela. Biltzarrean parez pare jarri ziren herritarrek dituzten arriskuak eta “terra incognita”-ko itsasoak.

Sei gairen inguruan ardatsu zen programa: segurtasun publikoa, globalizazioa, zuzenbidearen eta teknologiaren arteko elkarreleragina, konputazio ubikua, adin txikikoak eta gorputza datu gisa.

Hizlariak honako mehatxu hauek azaldu zituzten pribatutasuna dela-eta:

- terrorismoari aurre egiteko segurtasun-neurri berriak hartzeko presioak; gero eta presio handiagoa da, eta gero eta gehiago inbaditzen dute herritarren bizitza pribatua,
- Datuen babesa inbaditzen duten teknologia berriak: datu ugaritasuna, kokapen geografikoa, urrutiko sentsoreen eta bideo-zaintza, Interneten ubikuotasuna eta informazioko sistema globalak,

Biltzarrean honako erabaki hauek hartu ziren:

- Biltzarreko kide berriak onartzea: Eslovenia, Mazedonia eta Kanadako Ternua eta Labrador probintzietako agintariak.
- Lau erabaki hartu ziren, honako gai hauei buruz:
 - o bidaiarien datuak babesteko nazioarteko arauak lehenbailehen ezartzea,
 - o datuak babesteko nazioarteko arauak egitea,
 - o nazioarteko lankidetzaren eta
 - o biltzarrearen antolaketari buruzko alderdiak.

Biltzarrean lan-talde bat eratu zen, **nazio askotariko estatuen eta estatu federalen datuak babesteko lankidetzaren-tresnen** inguruan, eta erabaki zuen ekimen bateratuak garatzea, beren ahalmenen barruan, eta informazioa trukatzeko. Honakoak dira helburuak:

- estatuetak (federalak zein nazio askotarikoak) agintarien arteko lankidetzaren sustatzea, datuen babesaren inguruan,
- informazioa elkarri emateko modu berriak aztertzea,
- era aktiboan eta etengabe aritzea datuen babeserako eskubidearekin zerikusia duten teknologia-garapenetan,
- praktika egokienak garatzea eta ezartzea herritarrek kontzientzia handiagoa har dezaten datuen babesaren eta beste eskubide batzuen inguruan diren arriskuez,
- datuak babesteko eskubidea lehian sartzen denean beste eskubide batzuekin (segurtasuna, informatzeko askatasuna, osasuna...) lankidetzaren indartzea
- bizitza pribatuan duen eraginaren azterketa sustatzea eta antzeko beste neurri batzuk
- Adi eta erantzuteko prest agertzea informazio pertsonalaren osokotasuna mehatxatu dezaketen gertakizunen aurrean

Biltzarraren inguruko informazio zehatzagoa jaso nahi izanez gero, jo helbide honetara: http://www.privacyconference2007.gc.ca/Terra_Incognita_home_E.html

Beste alde batetik, azpimarratu behar da DBEBk honakoetan izandako parte hartzea:

Telekomunikazioetako Datuen Babesari buruzko Nazioarteko Lan-taldea (IWGDPT – Berlingo Taldea)

Telekomunikazioetako Datuen Babesari buruzko Nazioarteko Lan-taldea, "Berlingo Taldea" izenez ezaguna dena (IWGDPT, horiek baitira ingeleseko siglak) 1983. urtean sortu zen, eta helburu du Datuen babesa eta Pribatutasuna hobetzea Telekomunikazioaren alorrean. 90 hamarkadaren hasieratik taldea aritu da, bereziki, pribatutasunaren babesean Interneten, bai eta sortzen ari diren teknologiek pribatutasunean duten inplikazioetan ere.

Taldea bi aldiz biltzen da urtero, apirilean eta irailean. DBEBk parte hartu zuen egindako bi bileretan:

Berlingo Taldearen udaberriko bilera, Guersneyn, apirilaren 12an eta 13an

Bilerara 47 lagun joan ziren, 28 herrialde edo erakunderen izenean.

Gai asko landu ziren, eta horien artean azpimarratu beharrekoa da Google Inc. erakundearen ordezkari batek egin zuen agerraldia. Taldeari azaldu zion zein diren bere erakundearen pribatutasun politikak, eta beren bilatzaileari buruz egiten diren galderei buruzko datuen atxikipenaren zehaztasunak eman zituen. Datuak atxikitzen dira, haren esanetan, Estatu Batuetan izan diren ikerketa jakin batzuetarako lege-eskakizunak izan direlako. Aldez aurretik erregistratzea edo identifikatzea eskatzen duten zerbitzuetako, doanekoak edo ordaindu beharrekoak, datu pertsonalen trataerari buruz ere galdetu zioten, bereziki Gmaileko posta elektronikoko edukien ikuskaritzari buruz. Adierazi zuen ikuskaritza automatikoki egiten dela, eta helburu duela fokutatutako publizitatea. Googleko ordezkariak azaldu zuen Estatu Batuetako agintariak eskatu ziotela posta-mezuaren bilaketak egiteko, bereizi gabe, eta ezezkia eman ziotela, eta ondoren Estatu Batuetako auzitegiek arrazoia eman ziotela Googleri.

Hartutako erabakien artean dago lan-agiri bat, mugaz gaindi diharduten tele-marketingeko enpresentzako gomendioak dituen; hala ere, udazkenean onartzea erabaki zen. Beste alde batetik, udazkenean Kanadan egin zen Datuen Babeserako eta Pribatutasunerako Komisarioen Nazioarteko Biltzarrari proposamena egin zitzaion. Proposatutako zitzaien etengabeko lotura-mekanismo bat Biltzar horren eta Estandarizazioko Nazioarteko Erakundearen (ISO) artean, batez ere pribatutasunaren nazioarteko estandarra zehazteko.

Berlingo Taldearen udazkeneko bilera, Berlinen, irailaren 4an eta 5ean

Bilerara 58 lagun joan ziren, 32 herrialde edo erakunderen izenean.

Bilera honetara Facebook-eko ordezkariak etorri ziren. Facebook gizarte-sare arrakastatsuenetako bat da, eta azkenaldian gehien hazi denetarikoa bat. Era horretako erakunde gehienak bezala, ekonomikoki bizi ahal izateko publizitatearen mende daude, eta erabiltzaileen datuak baliatzen dituzte publizitatea fokatatzearren; ez dute uzten zerbitzu horiek erabiltzea izenik eman gabe. Eztabaidak sortu ziren, eta erabaki zen lan-agiri bat prestatzea gizarte-sareei buruzko gomendioen inguruan; 2008ko udaberriko bileran eztabaidatuko da.

Beste zenbait gairen artean, Interneten eskura dauden zerbitzuek izan dezaketen arriskua dela – eta haurrak eta nerabeak kontzientzia har dezaten badirela hainbat proiektu jakinarazi zen. Guztien artean Norvegiak eta Portugalek aurkeztutako ekimenak nabarmendu ziren. Bestalde,

pribatutasunari buruzko eskema estandar baterako erreferentziazko arkitektura bati buruz ISOk egin dituen lan-agirietan izandako aurrerapenen berri eman zen.

Hainbat erabaki hartu ziren, eta horien artean lan-agiri bat, bideo digitaleko banaketa-zerbitzuen aurrean eta Telebista Digitaleko zerbitzu interaktiboaren aurrean gomendioak biltzen dituen, batez ere zerbitzu horiek erabiltzen dituztenen profilak egiteko gomendioak.

Azkenik, lan-agiri bat onartu zen, garraio publikoetako txartel elektronikoen (e-Ticketing) zerbitzuen inguruko gomendioak biltzen dituen (anonimotasuna erraztea joan-etorrietan, trafiko-datuen erretentzioa eta erabilera urritzea, eta ordainagiriak lortzea egoki konbinatzea joan-etorrietako pribatutasunarekin).

Bileraren inguruko informazio zehatzagoa jaso nahi izanez gero, jo URL International Working Group on Data Protection in Telecommunications (IWGDPT) orrialdera: <http://www.datenschutz-berlin.de/doc/int/iwgdpt/>

Twinning Project

Datuak Babesteko Euskal Bulegoak parte hartu zuen Twinning Project BG 2005/IB/OT/02 "Further Strengthening of the Administrative Capacity of the Bulgarian Commission for Personal Data Protection and Providing Conditions for Implementations of the Personal Data Protection Law" jardunaldietan.

Honakoa izan zen Twinning-eko parte hartzea:

- Zuzendaria Sofian izan zen martxoaren 21etik 23ra.
- Bulegoaren egoitzan Bulgariako ordezkari bat hartu zen, lan-jardunaldi bat egiteko martxoaren 29an; sailen funtzionamenduaren eta erabilitako kudeaketa-prozeduren berri eman zitzaion.

12.2. Estatuko datuak babesteko beste bulego batzuekiko lankidetzaren

12.2.1. Koordinazio-taldearen funtzionamendua

Madril, martxoaren 28an, egindako bileran, erabaki zen eratzea eta abiaraztea zuzendarien taldea eta honako koordinazio talde hauek:

- Lege- eta arau-analisia
- Ikuskaritza
- Erregistroa
- Antolaketa, modernizazioa, komunikazioa eta prestakuntza
- Nazioarteko taldea

Talde horiek azpian zerrendatzen bilerak, aurrez aurrekoak edo bideokonferentzia bidez, egin dituzte, eta eztabaidatu dute jardura-irizpide bateratuak ezartzeko eta jarduerak elkarrekin antolatzeko zenbait gai buruz. Honakoak izan ziren bilerak eta landutako gaiak:

- Zuzendariak. Martxoaren 28an. Madril. AEPDren egoitzan
- Lege- eta arau-analisia. Urriaren 9an. Bartzelona. APDCATen egoitzan.
 - o Lege- eta arau-analisiko taldearen funtzionamendu-erregimena ezartzea
 - o Osasun historia elektronikoa

- o Zehatzeko eskumena bideo-zaintzaren esparruan
- o Zenbait erakundek titulartasun publikoko fitxategiak onartzeko tresna (Tokiko erakundeak, elkargoak, merkataritza ganbarak, unibertsitateak...)
- o Hatz-aztarnaren trataera datuen babesaren ikuspegitik
- o Hildakoen datuak
- Ikuskaritza. Ekainaren 27an. Madrilen, AEPDen egoitzan. Irailaren 20an, bideokonferentzia. A 28an, Madrilen, APDCMen egoitzan.
 - o Ikuskaritzako jarduera-protokoloa
 - o Zehatzeko prozedura: datuak babesteko legearen interpretazioak ekar ditzakeen arazoak talderatzea:
 - o Salaketak pilatzea Arau-hausteko Prozedura bakar batean
 - o Salaketaren eta salatzailearen trataera
 - o Dokumentuak interesdunei ematea...
 - o Kontrol-agintaritzen arteko ikuskaritza koordinatzea, betiere ikertzen badira tratamendu pribatuaren arduradunak, Erkidegoetako kontrol-agintaritzaren ikuskaritzapean diharduten erakunde publikoetan zerbitzuak eskaintzen dituztenak.
 - o Erkidego-agintaritzen kontrolpean dauden arduradun pribatu eta publikoak ikertzen diren jardueretako koordinazioa.
 - o Ikertzeko eskumena nork duen jakiteko interpretazio desberdinak dauden egoeretan, ikuskaritza-jardueren koordinazioa
 - o Ikuskaritza bukatu aurretik lanpostua uzten duten goi-karguak ikertzea
 - o Azaroaren 26ko 30/1992 Legearen, hau da, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen Legearen 4.1. c),d) eta 2, 69.2 artikuluen irismena, horiek baitira datuak tratatzeko (jaso, erabili eta lagatzea) tratatzeko gaikuntza ematen duten tituluak
 - o Salaketen edukietan gutxienekoak ezartzea, tramitera onartzeko edo eskumena duen Bulegoari emateko
 - o Herritarren batek babesa eskatzen badu, Oposizio Eskubidearen erabilera bateratua.
 - o Babes eta Zigor espedienteak direla-eta, Bulegoen erabakiak betetzen ez badira, hartu beharreko neurri hertsatzaileak
 - o Herritarrek beren eskubideak egikaritzean, arduradunek DBLO bete duela egiaztatze bitartekoak
 - o Ikuskaritza aktetarako eredu komunak ezartzea.
 - o Bideokamerako irudiak: atzitzeko eta baliogabetzeko eskaerekin dauden arazoak
 - o Zigor-erabakien aurkako auzietan gastuak ordaintzea
 - o Arartekoari jakinaraztea birjartze-errekurtsoen erabakiak

- o Salaketak babes-prozedura bilakatzea
 - o Espedienteak bulegoen artean lekualdatzeko prozedura
- Erregistroa. Maiatzaren 7an, Madrilen, AEPDren egoitzan. Azaroaren 20an, bideokonferentzia.
 - o NOTA sistemaren egoera eta jarraipena
 - o Ereduen bateragarritasuna eta elkarri jakinarazteko prozedurak.
 - o Erregistroetan dagoen informazioaren osotasuna.
 - o Fitxategiak jakinarazteko eskakizun burokratikoak murriztea.
 - o Eskumenak zedarritzea eta desadostasunak konpontzea.
- Antolaketa, modernizazio, komunikazio eta prestakuntza. Urriaren 4an, Bideokonferentzia. A 21ean, Gasteizen, DBEBren egoitzan.
 - o Bideokonferentzia
 - o Prentsa-dossier eta hedabideekiko harremanak
 - o Herritarrek PDPC nola hautematen duten aztertzea
 - o Herritarrentzako inkestak PDPCri buruz.
 - o PDPC herritarren artean sustatzeko kanpainak
 - o Prestakuntza eta informazio materialak sortzea
 - o Bulegoetako langileentzako prestakuntza Ekintzak koordinatzea
 - o Praktika egokien gidak edo kode ereduak administrazioetarako
 - o PDPCn praktika egokiak egiaztatze sistemak
 - o TECNIMAPen elkarrekin parte hartzea
 - o Jakinarazpen eta beste dokumentu batzuen eredu katalogoa egitea
 - o 2008ko DBaren Europako Eguna ospatzea

12.2.2. TECNIMAPen parte hartzea

TECNIMAP topagune bat da, eta han biltzen dira Administrazio Publikoetako informazio-teknologiaren eta telekomunikazioen ordezkariak, sektoreko enpresa nagusiak eta arlo horietako hainbat aditu ere. Informazio-teknologiaren eta zerbitzu publikoen alorreko esperientziak, ideiak eta proiektuak partekatzeko gune bat da.

Hamargarren edizioa antolatu zuten Administrazio Publikoen Ministerioak, Asturiasko Gobernuak eta Xixongo Udalak, eta azaroaren 27tik 30era egin zen, Xixongo erakustazokan. 5000 lagun baino gehiago bertaratu ziren, 250 enpresa eta 100 bat komunikabide.

Lau egu haietan mahainguruak eta tailerrak izan ziren etengabe; teknologia berrien eta administrazio elektronikoaren esparruko gaiak eztabaidatu ziren horietan.

DBEBak eta Datuak Babesteko gainerako bulegoek elkarrekin hartu genuen parte, Pabilioi berean izan ginen. Bisitariei informazioa eman zitzaion datuen babesaren inguruan eta Bulegoen

jardunaz. Bulegoen arteko lankidetza horrek ahalbidetu zuen denon artean triptiko bat egitea . Honako atalak zituen triptiko hark: zer dakite zutaz?, printzipio kontu bat, zure eskubidea da, zurekin gaude, zure identitatea fitxatuta dago, zeuk mugitu behar duzu fitxa eta zure datuak babesteko ari gara lanean.

Bulegoek egin zuten jarduera nagusienetako bat iuzan zen “**Segurtasuna eta konfiantza. Datuen Babesa**” Tailerra. Azaroaren 29an egin zen, eta lau bulegotako kideek aurkeztu zituzten txostenak.



Tu identidad está fichada

Tus Datos Personales
Son informaciones sobre ti que utilizan las administraciones públicas y las empresas privadas para realizar su actividad.

Figuras en Ficheros
Tus apellidos, tu dirección, tu fotografía, tu estado civil, tus estudios... son ejemplos de datos personales que pueden formar parte de ficheros de las administraciones públicas y empresas privadas.

Tú eres quien mueve ficha

Tus Datos te pertenecen. Aunque los ficheros donde se encuentren tus datos puedan pertenecer a administraciones públicas y empresas, tú eres la única persona propietaria de tus datos.

Es necesario tu consentimiento. Para que tus datos puedan ser recogidos, tratados o cedidos a terceros por parte de las administraciones públicas, es necesario tu consentimiento o que esté previsto por la ley. Las empresas necesitan también tu consentimiento para el uso de tus datos salvo en los casos que exista una relación contractual previa.

Trabajamos para proteger tus datos personales

Agencia Española de Protección de Datos
Tratamiento de datos personales por empresas privadas.
Tratamiento de datos personales por administraciones públicas que no pertenezcan a la Comunidad Autónoma de Madrid, Comunidad Autónoma de Cataluña, Comunidad Autónoma del País Vasco.
E-mail: ciudadano@agpd.es • web: www.agpd.es
Tel. 901 100 099 • C/ Jorge Juan, 6
28001-Madrid

Agencia de Protección de Datos de la Comunidad de Madrid
Tratamiento de datos personales por las administraciones públicas de la Comunidad Autónoma de Madrid.
E-mail: agpdcm@madrid.org • web: www.agpdcm.es
Tel. 91 580 28 74 • C/ Cardenal Marcelo Spínola, 14, 3ª planta
28016 Madrid

Agencia Catalana de Protección de Datos
Tratamiento de datos personales por las administraciones públicas de la Comunidad Autónoma de Cataluña.
E-mail: consultes.apdcat@gencat.net • web: www.apdcat.net
Tel. 902 011 710 • C/ de la Llacuna, 166, 7ª planta
08018 Barcelona

Agencia Vasca de Protección de Datos
Tratamiento de datos personales por las administraciones públicas de la Comunidad Autónoma del País Vasco.
E-mail: avpd@avpd.es • web: www.avpd.es
Tel. 945 016 230 • C/ Beato Tomás de Zumárraga, 71, 3ª planta
01008 Vitoria-Gasteiz



¿Qué saben de ti?

LA PROTECCIÓN DE TUS DATOS PERSONALES



La protección de tus datos personales

Una cuestión de principios

Para recoger, tratar tus datos o cederlos a terceros, las administraciones públicas y las empresas deben respetar una serie de principios:

- Informarte** para qué se van a usar tus datos, quién es el responsable del fichero, si se van a ceder a terceros y dónde puedes ejercer tus derechos.
- Pedirte sólo los datos justos y adecuados** para la finalidad para la que se solicitan.
- Cancelar los datos** cuando ya se haya cumplido su finalidad.
- Tenerlos actualizados.**
- Garantizar la seguridad de los datos.**
- Guardar secreto profesional.**

Datos personales especialmente protegidos:
Tu ideología, tus creencias, tu religión, tu afiliación sindical, tu origen racial, tu salud, tu vida sexual, tus datos sobre infracciones penales y administrativas. (Para obtener y tratar estos datos es necesario el consentimiento y se exige un mayor nivel de seguridad).



La protección de tus datos personales

Estás en tu derecho

La protección de tus datos personales es un **derecho fundamental** reconocido en la Constitución y en la normativa Europea. Asimismo, se han elaborado leyes específicas para proteger tus derechos como La Ley Orgánica 15/1999 de Protección de Datos y otras que regulan las competencias de las Agencias de Protección de Datos existentes.

Tienes derecho a:

- Información** previa sobre para qué uso te los solicitan.
- Conocer** qué datos tienen sobre ti.
- Rectificar o Cancelar** datos cuando sean inexactos o incompletos.
- Oponerte** al tratamiento en determinadas circunstancias.
- Impugnar** decisiones que te afecten significativamente basadas sólo en datos que miden aspectos de tu personalidad.
- Tutela** de las Agencias de Protección de Datos para que se tengan en cuenta tus derechos.
- Consultar gratuitamente** el Registro de Protección de Datos de la Agencia.



La protección de tus datos personales

Estamos contigo

Para **ejercer tus derechos** debes dirigirte al **responsable del tratamiento** de datos. Si el responsable no te contesta o te niega tus derechos, puedes dirigirte a la Agencia de Protección de Datos.

Las Agencias de Protección de Datos
Son autoridades de control independientes.

- Vigilan el cumplimiento de la ley por las administraciones públicas y empresas en el uso de datos personales.
- Atienden consultas y petición de informes que, en relación a la protección de datos, son solicitados por personas e instituciones.
- Tutelan a las personas cuando sus derechos no son tenidos en cuenta por administraciones o empresas.
- Sensibilizan a la ciudadanía y potencian la adopción de mejores prácticas por parte de las personas al servicio de las instituciones públicas.

12.3. Datuak Babesteko Espainiako Agentziaren Aholku-batzordean parte hartzea

DBEBren zuzendariak, Datuak Babesteko Espainiako Agentziaren Aholku-batzordearen kide izanik, parte hartu zuen 2007an egindako bi bileretan, uztailaren 17an eta abenduaren 10ean.

12.4. Datuak Babesteko autonomia mailako Agentzien IV. Topaketa antolatzea

DBEBk Gasteizen antolatu zuen Datuak Babesteko autonomia mailako Agentzien IV. Topaketa; izenburua izan zen **Datuen Babesa eta informazio atzipena. Aldibereko eskubideen arteko beharrezko bat-egitea**. Honakoa nabarmenduko dugu:

Egunak: 2007ko urriaren 23an eta 24an

Tokia: Vitoria-Gasteiz. Europa Biltzar eta Erakusketa Jauregia. Francisco de Vitoria Aretoa.

Laguntzaileak: Vitoria-Gasteizko Udala. Jaurilaritzaren Lehendakariordetza.

Programa

- Inaugurazio-ekitaldi ofiziala. “Administrazioen eta hiritarren arteko harremanak agertoki teknologiko berrian”. Javier Echeverría Ezponda jn. Zientzia, Teknologia eta gizarte saileko ikerketa irakaslea. zientzia ikerketen kontseilu gorena.
- Herri administrazioen informazio atzipena 30/92 legean eta datuen babesa
 - o Herri administrazioen informazio atzipena 30/92 legean eta datuen babesa “hiritarren zerbitzu publikoetara sartzeari buruzko legea”. Juan Miguel Márquez Fernández jn. Administrazioa Eraberritzeko zuzendari nagusia. Administrazio Publikoen Ministerioa.
 - o “Administrazio elektronikoa: Erronka berriak, aukera berriak, arazo zaharrak?” Joseba Koldo Bilbao Gaubeka jn. Eusko Jaurilaritzako Modernizazio eta Administrazio Elektronikoko Idazkari Nagusia.
 - o Koordinazioa: Eduardo Jacob Taquet jn. Ingeniaritza telematikoko irakasle titularra. Elektronika eta Telekomunikazioen Saila. Bilboko Ingeniaritza Goi Eskola Teknikoa.
 - o “Informazio atzipena eta datuen babesa. Arazoaren egoera” Emilio Guichot Reina jn. Zuzenbide Administratiboko Irakasle Titularra. Sevillako Unibertsitatea.
 - o “Gardentasuna Europan. Egungo egoera eta etorkizunari begirako proiektuak”. Joaquín Bayo Delgado jn. Datuak babesteko Europako alboko gainbegiralea.
 - o Koordinazioa: José M^a Endemaño Aróstegui jn. DBEBren Kontseilu Aholku-emailearen lehendakaria. Tokiko erregimeneko zuzendaria. Eusko Jaurilaritzaren Lehendakariordetza.
- Datuen publizitatea, hedapena eta babesa agertoki teknologiko berrian: Mehatxuak eta Aukerak
 - o “Publizitatea eta Internet” Manuel Fernández Salmerón jn. Zuzenbide Administratiboko Irakasle Titularra. Murtziako Unibertsitatea.

- o “Erregistro-publizitatea eta datuen babesa”. Ignacio Villaverde Menéndez jn. Erakunde Harreman, Koordinazio eta Komunikazioko Errektoreordea. Oviedoko Unibertsitatea.
- o “Publizitatea aldibereko lehiakortasun-sistemetan eta datuen babesean. Garaiak aldatzen ari dira. Ekitaldi publikoak, aldizkarietako publizitatea eta hedapena”. José Ramón Chaves García jn. Auzien 5. Epaitegiko Magistratua. Oviedo.
- o Koordinazioa: Juan Luis Mazmela Etxeberria jn. Eusko Legebiltzarreko Informatika Zerbitzuen arduraduna.
- Agintaritza Independentiak, Informazio Atzipena eta Datuen Babesa. Sistema ezberdinak.
 - o “Suitzako eredua. Agentzia bakarreko sistema”. Reto Ammann jn. Datuen Babeserako eta Gardentasunerako Suitzako Komisariotza Federala.
 - o “Kanadako eredua. Agentzia biko sistema”. Charles Morgan jn. Abokatua McCarthy Tétrault entpresan
 - o Koordinazioa: Iñaki Esparza Leibar jn. EPV/EHUko Idazkari Nagusia. Zuzenbide prozesaleko irakasle titularra. Zuzenbide Publikoko Saila. Zuzenbideko Fakultatea.
- MAHAI-INGURUA. Informazio Atzipena eta Datuen Babesa. Etorbizuneko Agertokiak Estatuan eta Autonomia Erkidegoetan. Sistema ezberdinei buruzko Agentzien euren ikuspegi bat.
 - o Datuak Babesteko Espainiako Agentzia. Artemi Rallo Lombarte jn. Datuak Babesteko Espainiako Agentziako Zuzendaria.
 - o Datuak Babesteko Kataluniako Agentzia Esther Mitjans I Perelló and. Datuak Babesteko Kataluniako Agentziako Zuzendaria.
 - o Datuak Babesteko Madrilgo Erkidegoko Agentzia Antonio Troncoso Reigada jn. Datuak Babesteko Madrilgo Erkidegoko Agentziako Zuzendaria.
 - o Datuak Babesteko Euskal Agentzia. IÑAKI VICUÑA DE NICOLÁS jn. Datuak Babesteko Euskal Agentziako Zuzendaria.
 - o Eztabaida. Moderatzailea: Sabino Torre Díez jn.. Araubide Juridikoaren Idazkari nagusia. Eusko Jaurlaritzaren Lehendakariordetza.
- Topaketako ondorioen aurkezpena
- Topaketaren amaiera. Idoia Zenarruzabeitia Beldarrain and. Eusko Jaurlaritzaren Lehendakariordetza.

Jardunaldietara Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioetako ordezkari ugari etorri zen (207 parte hartzaile, eta horietatik 188 administrazioetakoak izan ziren); oso balorazio ona izan zuen topaketak (8,20, 0-10 eskalan)

Informazio gehiago eskuratu nahi izanez gero, jo DBEBaren URLra: [Documentación - Agencia Vasca de Protección de Datos - Gobierno Vasco - Euskadi.net](#)

12.5. Datuen babesaren inguruko biltzarretan, mintegietan eta bestelako jardueretan izandako parte hartzea

Datuak Babesteko Euskal Bulegoak honako biltzar eta jardueretan hartu du parte:

- **“Datuen Babesaren inguruko arazoak” Biltzarra.** Vitoria-Gasteizen, 2007ko urtarrilaren 26an. Consejo de Mediadores de Seguros Titulados del País Vasco erakundeak antolatuta.
- **“Segurtasuna eta Datuen Babesa” Mintegia.** Madrilen, 2007ko otsailaren 14an. SOCINFOk antolatuta.
- **“Datuak Babesteko Euskal Bulegoa eta Lan-elkargoak” hitzaldia.** Vitoria-Gasteizen, 2007ko otsailaren 28an. Arabako Sendagaigileen Elkargo Ofizialak antolatuta.
- **“Telefonia zerbitzua eta datu pertsonalen babesa” txostena.** Bilbon, 2007ko martxoaren 21etik 23ra. Kontsumo Zuzendaritzak antolatuta.
- **“Datuen babesa praktikan”** Hitzaldia. Madrilen, 2007ko martxoaren 26an. DINTEL Fundazioak antolatuta.
- **“Informazioaren segurtasuna funtsezko baldintza osasun-laguntza eman ahal izateko”** mahai-ingurua koordinatzea Osasun Datuen Babesari buruzko IV. Foroan. Iruñean, 2007ko maiatzaren 29an eta 30ean. Sociedad Española de Informática de la Saludek (SEIS) antolatuta.
- **“Datu pertsonalen babesaren eragina Giza Baliabideen kudeaketan”** txostenaren aurkezpena **“Giza baliabideen kudeaketa Administrazio Publikoan”** Nazioarteko Biltzarrean. Vitoria-Gasteizen, 2007ko ekainaren 13tik 15era. Vitoria-Gasteizko Udalaren Funtzio Publikoko Sailak antolatuta.
- **“Derrigorrezko Zerga-bilketa eta Datuen Babesa”** ikastaroa Ogasun Sailean. Vitoria-Gasteizen, 2007ko uztailaren 3an. IVAPEk antolatuta.
- **“e-Derecho: Logros y Desafíos del Derecho en la Sociedad del Conocimiento”.** mintegia. Hueskan, 2007ko uztailaren 23an. Universidad Internacional Menéndez Pelayok (UIMP) antolatuta.
- **“IKTak eta pertsonen eskubideak”** Udako ikastaroetan. 2007ko irailaren 3tik 5era. DBEBko Kontseilu aholku-emaileko partaide eta Bilboko Industria- eta Telekomunikazio-Ingeniarien Goli-Eskola Teknikoko irakasle titularra. Euskal Herriko Unibertsitateak antolatuta.
- Prestakuntza etengabeko mintegia: **“Giza material biologikoarekin ikertzeko aujera berriak: Ikerkuntza Biomedikuko Lege Proiektua”.** Euskal Herriko Unibertsitatean, 2007ko irailaren 19an. Euskal Autonomia Erkidegoko Ikerketa Klinikoetarako Batzorde Etikoak antolatuta.
- **“Datu Pertsonalen Babesa Udaletan”** aurkeztu zitzaion Abadiñoko Udalaren Gobernu-taldeari. Abadiñon, 2007ko urriaren 16an. Udalak antolatuta.
- **“Datu Pertsonalen Babesa. Datuak Babesteko Euskal Bulegoaren ikuspegia”** eta **“Datu Pertsonalen babesa eta Teknologia Berriak. Erakunde zibiletatiko ikuspegia”** hitzaldiak. Vitoria-Gasteizen, 2007ko azaroaren 9an. Euskal Herriko Unibertsitateko Ingeniaritza Eskolak antolatuta.
- **“Datu Pertsonalen babesa eta informazio atzipena”** ikastaroa, Bizkaiko Foru Aldundiaren Enplegu eta Prestakuntza Sailarentzat. Bilbon, 2007ko abenduaren 4an.

12.6. Estatistikako Euskal Planaren koordinazio lan-taldearekiko lankidetza

Euskal Estatistika Kontseilua/Consejo Vasco de Estadísticaren 2007ko azaroaren 15eko Osoko Bilkuran onartu zen Estatistika Euskal Plana 2009-2012 aurreproiektuaren metodologia, eta horretarako Koordinazio-taldea eta Gaikako 6 Azpitalde eratu ziren. Azpitalde horiek adituak dira hainbat arlotako estatistikatan: populazioa, ekonomia, gizartea... eta azpitalde horiek aldian-aldian jakinarazi beharko diote koordinazio-taldeari lanak zein egoeratan dauden eta zein arazo azaldu zaien.

Datuak Babesteko Euskal Bulegoa Koordinazio talde horretan hartzen du parte. Honakoak dira taldearen zeregin nagusiak:

- Planaren arau teknikoak diseinatzea,
- Planaren Legearen Aurreproiektua egitea eta Estatistika Planak ebaluatzea, eta
- Plan horiek garatzen dituzten Programak egitea.

Hala bada, 2007ko abenduaren 12an bildu ziren Koordinazio Taldeko kideak eta gaikako azpitaldeetako kideak; Datuak Babesteko Euskal Bulegoak lehen aldiz hartu zuen parte taldean bilera horretan.

12.7. Hitzarmenak

12.7.1. Sinatutako Hitzarmenen jarraipena

Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitatearekin eta EUDELekin sinatutako hitzarmenen jarraipena egiteko hainbat bilera izan dira, egindako jarduerak aztertzeke eta 2008ko Jarduera-planak zehaztearren.

12.7.2. Hitzarmen berriak sinatzea

Sociedad Española de Informática de la Saludekin hitzarmena

2007ko martxoaren 7an Lankidetza-hitzarmena sinatu zuten DBEBk eta Sociedad Española Informática de la Saludek (SEIS), datu pertsonalen babesaren inguruan lankidetza markoa ezartzearren. Honakoa da edukiaren eskema-laburpena:

Sinatzaileak	• SEIS • DBEB
Helburua	Datu pertsonalen babesaren inguruan lankidetzarako esparrua ezartzea
Betebeharrak	• Erkidegoan datuen babesaren inguruan indarrean dagoen legedia aztertzea. • Osasun sektorean datuen babesaren inguruan sortzen diren egoerak aztertzea. • DBEBaren Web orrian argitaratzea SES erakundeko adituek idatzitako artikulak. • I-S aldizkarian argitaratzea DBEBaren adituek idatzitako artikulak. • EAEKo osasun-langileentzat jardunaldiak edo antzekoak antolatzea datuak babesteko eskubidea hedatzearren. • Beren hedabideetan argitaratzea Erakunde biek egindako

	ekintza eta jarduerak • Osasunarekin eta datuen babesarekin zerikusia duten argitalpenak egiten eta zabaltzen elkarrekin aritzea lanean. • DBEBak aholkua ematea SEISeko partaideei datuen babesaren inguruan. • Ahalbidetzea “Dokumentu-Funtsetara” jotzeko aukera • SEISeko partaideek praktikak eta ikerketak egin ahal izatea DBEBan. • Zientzia-ikerkuntza eta teknologia-garapena sustatzea I+G+B programen esparruan, betiere edukia osasuna eta bere harremana datuen babesaren inguruan indarrean dagoen araudiari buruzkoa bada. • Osakidetzan, datuen babesari dagokionez, praktikarik egokienak identifikatzea.
Jarraipen Batzordea	Erakunde bakoitzeko bi ordezkari osatua.
Indarraldia	Sinatu eta hurrengo egunean sartuko da indarrean, eta indarraldiak iraungo du 2007ko abenduaren 31 arte; automatikoki luzatuko da urtero, aldeek besterik hitzartzen ez badute.

Hitzairena Askatasun eta Informatikaren Batzordearekin

2007ko azaroaren 9an Lankidetza-hitzairena sinatu zuten DBEBk eta Askatasunen eta Informatikaren Batzordeak (CLI), datu pertsonalen babesaren inguruan lankidetza markoa ezartzearen. Honakoa da edukiaren eskema-laburpena:

Sinatzaileak	• CLI • DBEB
Helburua	• Datu pertsonalen babesaren inguruan lankidetzarako esparrua ezartzea
Betebeharrak	• CLI ✓ DBEBri bidaltzea bertako adituek egiten dituzten datuak babestearen inguruko artikuluak, tesiak, ikerketa egitasmoak eta bestelako dokumentazio lanak. ✓ DBEBaren jardueren zabalkundea egitea Web orrian. ✓ Zabalkunderako jardunaldiak edo ekitaldiak antolatzea. ✓ Edozein jarduera arlotan datu pertsonalen gaiarekin zerikusia duten egoeren azterketa sustatzea. ✓ Laguntzea DBEBk bere eskumenen arloan egiten dituen proposamenak eta jarraibideak ezagutarazten eta bistarazten. ✓ DBEBren eskura jartzea bere “Dokumentu-funtsak” ✓ Ikerketak eta praktikak egiteko bazkideak proposatzea.

	• DBEB ✓ CLIren jardueren zabalkundea egitea Web orrian. ✓ Askatasunen eta Informatikaren Batzordea (CLI) elkartearen eskura jartzea DBEBren aholkularitza zerbitzuak, datu pertsonalen babeserako oinarritzko eskubideari dagokionean. ✓ CLIren eskura jartzea bere "Dokumentu-funtsak" ✓ Edozein jarduera arlotan datu pertsonalen gaiarekin zerikusia duten egoeren azterketa sustatzea. ✓ CLIren bazkideen ikerketak eta praktikak egitea. ✓ Zabalkunderako jardunaldiak edo ekitaldiak antolatzea.
Aplikazioa	• Urtarrila baino lehenago, urteko jarduera-plana eratzea eta horren aurrekontua egityea. • Ekitaldi bakoitzean, bere aplikazioa
Jarraipen Batzordea	Erakunde bakoitzeko bi ordezkari osatua.
Indarraldia	Sinatzen den hurrengo egunean sartuko da indarrean, eta mugagabea izango da.

Hitzarmena Kalitaterako Euskal Iraskundearekin (EUSKALIT)

2007ko abenduaren 17an Lankidetza-hitzarmena sinatu zuten DBEBk eta Kalitaterako Euskal Iraskundeak (EUSKALIT), datu pertsonalen babesaren inguruan lankidetza esparrua ezartzearen. Honakoa da edukiaren eskema-laburpena:

Sinatzaileak	• EUSKALIT • DBEB
Helburua	Datu pertsonalen babesaren inguruan lankidetzarako esparrua ezartzea
Betebeharrak	• EUSKALIT ✓ DBEBri laguntzea barne kudeaketarako sistema bat garatzen. ✓ Bere hedabideetan zabaltzea datuak tratatzeko ezagupenak eta praktika egokiak. ✓ DBEBri laguntzea euskal administrazio publikoaren erakundeek datu pertsonalen tratamenduan erabiltzen duten zorrotasuna ebaluatzeke metodologia bat garatzen ✓ Ebaluatzaile Klub bat sortzeko aukera aztertzea. • AVPD ✓ EUSKALITen ekimenetan eta jardueretan laguntzea. ✓ EUSKALITeko ebaluatzaileei Datu Pertsonalen Babesaren arloko informazio saioak eta prestakuntza moduluak ematea ✓ Ebaluatzaile Klub bat sortzeko aukera aztertzea.

Aplikazioa	• Urtarrila baino lehenago, urteko jarduera-plana eratzea eta horren aurrekontua egityea. • Ekitaldi bakoitzean, bere aplikazioa
Jarraipen Batzordea	Bi erakundeetako zuzendaritzako arduradunak
Indarraldia	Sinatu eta hurrengo egunean sartuko da indarrean, eta indarraldiak iraungo du 2008ko abenduaren 31 arte; automatikoki luzatuko da , aldeek besterik hitzartzen ez badute

Era berean, beste Hitzarmen bat negoziatu zen, 2008. urtean sinatuko dena, HAURRESKOLAK Partzuergoarekin.

13. Barne Kudeaketa

13.1. Pertsonen kudeaketa

13.1.1. 2007ko aurrekontu-plantilla

Honako aurrekontu-plantilla eratu da:

GOI-KARGUAK ALTOS CARGOS	/ DOTAZIO KOPURUA / N. DOTACIONES
ZUZENDARIA / DIRECTOR	1
FUNTZIONARIOAK FUNCIONARIOS	/ DOTAZIO KOPURUA / N. DOTACIONES
28. maila / nivel 28	3
26. maila / nivel 26	4
25. maila / nivel 25	2
24. maila / nivel 24	1
23. maila / nivel 23	1
20. maila / nivel 20	1
18. maila / nivel 18	4
GUZTIRA / TOTAL	16

13.1.2. 2007an lanean jardun duten langileak

2007 ekitaldian honako lanpostu hauek egon ziren hornituta Bulegoan:

- Idazkari Nagusia, urte osoz, izendapen askez.
- Erregistroaren eta Teknologia Berrien arduraduna, urte osoz, behin betiko lehiaketa bidez otsailaren 1etik aurrera.
- Arlo juridiko eta ikuskaritzako arduraduna, urte osoz, behin betiko lehiaketa bidez otsailaren 1etik aurrera.
- Letratu instruktore ikuskatzailea, zerbitzu-eginkizunetan otsailaren 1etik aurrera.
- Letratu instruktore ikuskatzailea, zerbitzu-eginkizunetan martxoaren 1etik aurrera.
- Letratu instruktore ikuskatzailea, urte osoz, bitarteko izendapenez.
- Auditore-informatikari-ikuskatzailea, zerbitzu-eginkizunetan urtariletik aurrera.
- Auditore-informatikari-ikuskatzailea, zerbitzu-eginkizunetan urtariletik aurrera.
- Formazio, Informazio eta Dokumentazioko teknikaria, urte osoz, behin betiko lehiaketa bidez otsailaren 1etik aurrera.
- Kudeaketaren administrari koordinatzailea, urte osoz, behin betiko lehiaketa bidez otsailaren 1etik aurrera.
- Informatika-administraria, zerbitzu-eginkizunetan urtariletik aurrera.
- Goi-kargudunaren idazkaria, zerbitzu-eginkizunetan urtariletik aurrera.
- Administraria, behin betiko lehiaketa bidez otsailaren 1etik aurrera.

13.2. Aurrekontuaren, kontabilitatearen eta ondarearen kudeaketa

13.2.1. 2007ko aurrekontua

2/2004 Legearen 13. artikulua ezartzen du Datuak babesteko Euskal Bulegoak urtero-urtero aurrekontu-aurreproiektua egin eta onartu beharko duela. Gero, Eusko Jaurlaritzara bidali beharko du, han, behar bezain ondo bereizita, Autonomia Erkidegoko Aurrekontu Orokorretan sar dezaten, Euskal Autonomia Erkidegoko aurrekontu-sistema arautzen duten legeen arabera.

Prozesua egin ondoren, 2007 ekitaldirako DBEBrentzat onartu den gastuen aurrekontua honako hau da, laburbilduta:

GASTUAREN AZALPEN ETA KONTZEPTUA CONCEPTO Y EXPLICACION DEL GASTO	GUZTIRA/TOTAL
1. Kapituluak: Langile Gastuak Capitulo 1: Gastos de Personal	1.007.820,00
2. Kapituluak: Jarduera Gastuak Capitulo 2: Gastos de Funcionamiento	533.617,00
6. Kapituluak: Inbertsio Errealak Capitulo 6: Inversiones Reales	270.000,00
8. Kapituluak: Finantza-Aktiboen Gehikuntza Capitulo 8: Aumento de Activos Financieros	563,00
Gastuak Guztira Total Gastos	1.832.000,00

13.2.2. 2007ko aurrekontuaren exekuzioa

Aurrekontuaren exekuzioa hona hemen xehatuta:

SARREREN AURREKONTUA		2007					
KAPIT.	KAPITULUEN IZENDAPENA	Hasierako Aurreik.	Behin bet. Aurreikus.	Eskubide Garb.	Egindak Sarrerak	Kobratzeko	Exekuzio Egoera Aurr.def/ Esk. Garb.
4	Transferentzia arruntak	1.510.000,00	1.510.000,00	1.510.000,00	1.510.000,00		100%
5	Ondare sarrerak	12.000,00	12.000,00	75.577,55	29.612,52	45.965,03	630%
7	Kapital-transferentziak	270.000,00	270.000,00	270.000,00	270.000,00		100%
8	Finantza-aktiboak	40.000,00	40.000,00				0%
	Sarrerak guztira.	1.832.000,00	1.832.000,00	1.855.577,55	1.809.612,52	45.965,03	101%

GASTUEN AURREKONTUA		2007					
KAPIT.	KAPITULUEN IZENDAPENA	Hasiera Kreditu	Kreditu Guztira	Aitortutako Obligazioak	egind. ordaink.	Ordaintzeko	Exekuzio Egoera Ait.Obl./ Kred.Guzt.
1	Pertsonal gastuak	1.007.821,00	1.007.821,00	830.400,59	809.294,24	21.106,35	82%
2	Gastuak ondasun arruntetan eta zerbitzuetan	553.618,00	553.618,00	416.366,23	258.444,19	157.922,04	75%
6	Inbertsio errealak	270.000,00	270.000,00	203.095,20	26.327,08	176.768,12	75%
8	Finantza-aktiboak	561,00	561,00				0%
	Gastuak guztira.	1.832.000,00	1.832.000,00	1.449.862,02	1.094.065,51	355.796,51	79%

Ondare bidezko sarrerak (banku-interes ordainketa) aurreikusitakoa baino askoz ere handiagoak izan dira (alde batetik, Eusko Jaurlaritzaren eta kreditu-erakundearen artean sinatutako hitzarmenean ezarritakoaren arabera interesak aplikatzea, eta, bestetik, soberakin handia gordailuan).

Gastuen exekuzioari dagokionez, honakoa azpimarratu behar da:

- I Kapituluaren exekuzioa %82 da gero eta lanpostu gehiago ari delako betetzen, eta oso aurreratuta dagoen arren, bukatu gabe dago prozesua.
- II Kapituluaren exekuzioa %75 izan da, batez ere, Erakunde-komunikazioan eta publizitatean kontu-saila ez delako hainbeste gauzatu, ez baita gizarteari begirako kanpainarik egin gizarte-hautemateko inkesta bukatu arte, eta, beste alde batetik, ohiko administrazio-egitura osoaren funtzionamenduaren kostua txikiagoa izan da, hain zuzen, plantilla erabat bete gabe dagoelako.
- VIU. Kapituluaren exekuzioa %75 izan da; zatirik handiena informatika –aplikazioak garatzera bideratu da. Kontua da sistema-planen aplikazioa 2007. urtea aurreratu samar zegoela abiarazi zela.

13.2.3. Aurrekontu-kudeaketari buruzko instrukzioa

Ekonomia Kontrolerako Bulegoaren eta Aurrekontu Zuzendaritzaren zenbait iruzkin jaso eta behar ziren egokitzapenak egin ondoren, maiatzean onartu zen Aurrekontu-, kontularitza-, kontratazio- eta ondare-kudeaketari buruzko instrukzioa.

13.3. Baliabide materialak

13.3.1. Egoitza

2007. urtean betetzen joan da Tomas Zumarraga Dohatsuaren kalean, 71-3 zenbakiko Seminarioaren eraikinean aurreikusitako tokia.

13.3.2. Beste zenbait kontratu txiki

DBEBren funtzionamendua bermatzearren, hainbat kontratu txiki egin dira. Hona hemen garrantzitsuenak:

- lokalak alokatzea
- informatika-ekipoak alokatzea
- fotokopiagailuaren mantentze-lanak
- bulegoko materiala eta informatika-materiala
- prentsa, aldizkariak eta liburuak
- posta-komunikazioak
- informatika-aplikazioen mantentze-lanak eta ustiapena
- argitalpenen edizioa eta banaketa
- altzariak
- ikus-entzunezkoen ekipoak
- informatika-ekipoak
- liburutegietako funtsak
- Autonomia mailako IV. Topaketa antolatzeke zerbitzua eta idazkaritza teknikoa
- bideo bikoizketa

- funtzionarioentzako oinarrizko gidarako materialak sortzea
- “Emaizkidazu zure datuak” kontakizunak
- Web orria hobetzea
- Herritarrek datuen babesa nola hautematen duten jakiteko kalitate-azterketa
- argitaratu beharreko liburuxkak eta gainerakoak diseinatzea
- oroitidazkia eta beste zenbait liburuxka argitaratzea
- EJIekin egindako kontratu bidezko zerbitzuak: korporazio-sarearena, aplikazioak eta erabilerak, ostatu ematea, informatika-materiala lagatzea, lizentziak erosi eta mantentzea, eta abar.
- Esquema XML sortzea eta DBEBaren erabakien historikoa tratatzea

13.4. Teknologia-egitura eta aplikazioak garatzea eta hobetzea

Teknologia-azpiegituran egindako hobekuntzarik handiena izan da **bideokonferentzia-sistema** erostea eta abiaraztea; sistema horri esker koordinazio-bilerak egin daitezke, inora joan beharrik izan gabe edo aurrez aurreko bilerak egin behar izan gabe. Bilera-gela egokitu zen, eta instalazioa iraunkorra da, hartara aurkezpenak ikus daitezke sarean konektatutako ordenagailu bat eta bideo proiektorea edo/eta TFT pantaila erabilia.

Aplikazioen mantentzea eta garapena dela-eta, DBEBren eta EJIeren artean sinatutako hitzarmenaren esparruaren barruan, honako aplikazio hauek garatzea eta hobetzea lortu da:

- Lehen seihilekoa
 - o DBEBaren Izasera Pertsonaleko Fitxategien Erregistroaren aplikazioa zuzentzeko mantentzea (R78C).
 - o Informazio-sistemen Plana osatzea.
 - o DBEOri egin behar zaizkion Fitxategi-jakinarazpenen prozesuak egokitzea, NOTA/SIDIR sistemarekin bat etorrira.
- Bigarren seihilekoa
 - o Datu Pertsonalak dituzten Fitxategien Erregistroko Informazio Sistema garatzea; honako zereginak biltzen zituen:
 - o DBEBrekin lankidetzan jardutea sistemaren baldintzen katalogoa zehazteko.
 - o Sistema eraikitzeke oinarri teknikoaren plegua osatzea.
 - o ASI agiria egitea (Informazio Sistemaren Analisia)
 - o Sistema eraikitzea
 - o Sistema zabaltzea eta ezartzea

13.5. Prozesuak kudeaketa eta hobekuntza-taldeak

Ahalik eta eraginkorren jardutearren, Bulego honek prozesuak kudeaketa egin nahi du. Horretarako, arloetako prozesu batzuk definitzen hasi ginen, argi jakiteko zein jardura egin behar ziren, nork hartu behar zuen parte, zein agiri sortzen ziren eta zein tresna erabiltzen ziren edo erabili behar ziren.

Hala, bada, honako prozesu hauen oinarrizko definizioa egin da:

- irizpenak eta txostenak kudeatzea
- sektore-ikuskaritza
- prestakuntza-ekintzetan parte hartzeko behin-behineko sistema
- harrera-sistema

Beste alde batetik, 5S proiektu batean aritzeko lan-taldea eratu zen. Talde horrek ezarritako sistemak ahalbidetu zuen:

- Agirien fluxua, izenak eta Lege-aholkularitzaren lanarekin zerikusia zuten espedienteak identifikatzeko sistema normalizatzea.
- Bukatutako espedienteen artxiboaren kokalekua hobetzea.
- Direktorioen bidez ezartzea kontsulta-agirietarako artxibo komunerako irizpideak.
- Bulegoko material suntsikorraren artxiboaren hobekuntza

